

## XEDAPEN OROKORRAK

### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

#### 2901

*73/2018 DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, Izki Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arau-zatia onartzen duena, eta Parke Naturalerako eta Izki ES2110019 Kontserbazio Bereziko Eremurako (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremua (BBE) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana eta Kudeaketarako Jarraibide eta Jarduketan Dokumentua osorik argitaratzea agintzen duena.*

Izki eremuari balio natural handia aitortu zaio eta apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategineko (hemendik aurrera, NKLTB) naturagune babestutzat jo da. Gainera, tipologia hirukoitza biltzen du: batetik, martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren bidez eskuratu zuen Parke Naturalaren deklarazioa; eta, bestetik, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremua ere izendatu da, martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuarekin bat.

Parke naturalari dagokionez, NKLTBaren 20. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Natura Baliabiak Antolatzeko Plana (NBAP) izan behar du, marxoaren 31ko 64/1998 Dekretuak onartutakoa, alegia. Gainera, horrekin batera, 27. artikuluekin bat, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) ere izan behar du; horretan, dagokion naturagunea kudeatzeko arau, jarraibide eta irizpide orokorrak, naturagunearen barruan garatzen diren ekonomia- eta aisialdi-jarduerak antolatzeke arauak, eta espazioaren helburu zehatzak garatzen dituzten programak lantzeko jarraibideak jasoko dira.

Bere aldetik, Natura 2000 Sarearen tipologia kontuan hartuta, eremuak beharrezko kontserbazio-neurriak izan behar ditu; ildo horretatik, NKLTBaren 22.5 artikulua Eusko Jaurlaritzari kontserbazio-arauak ezartzeko agintzen dio eta hori martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuaren bidez gauzatu zen. Bestalde, foru-organoei espazioaren kudeaketa-jarraibideak onartzeko eskatzen zaie.

Gainera, NKLTBaren 18. artikuluekin bat, naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, Izki eremuan bezala, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu behar dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren araberatik aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

Hori guztia betetzeko, EKZP honek izaera bikoitza biltzen du; batetik, Izki Parke Naturalerako NKLTBaren 27. artikulua aurreikusitako tresna da; eta, bestetik, NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoarekin bat, Natura 2000 Sareko gunea kudeatzeko jarraibideak onartzeko tresna da. Hori guztia NKLTBaren 18. artikuluan aurreikusitako dokumentu bakarrean jasotzen da.

Dokumentuaren tramitazioak NKLTBaren 29. artikulua ezarritako pausoei jarraitu die. Azpimarratzeko da bide horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren artean izan den koordinazioa, hori idatzi eta bultzatzean. Horrela, uztailaren 20ko 183/2016 Foru Aginduarekin bat, Naturagune Babestuaren Foru-organo Kudeatzaileak Izki eremuaren EKZPa onartzeko prozedurari eman zion hasiera, bi helburuetarako balio zezan, hau da, bai Parke Naturalari dagokionez bai KBEa eta BBEa kudeatzeko jarraibide eta jarduketei dagokienez. Dokumentua bi hilabeteko epe batera jarri zen entzunaldiko izapidetan eragindako administrazioentzat eta gizarte, ekonomia eta ingurumen interesen ordezkari ziren elkarteentzat, eta jendaurrean ezarri zen interesdun ororentzat. Gainera, aginduzko txostenak eskatu zitzaizkien kide anitzeko organoei. Parke Naturalaren Patronatuak aho batez onartu zituen II. EKZParen

dokumentua eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiria 2016ko abenduaren 16an. Horren ondoren, 2017ko otsailaren 7an, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak EKZParen hasierako onespena adostu zuen eta Euskadiko Administrazio Orokorrean eta Arabako Foru Aldundian hiri-gintza arloaren eskumena duten organoei bidali zitzaizkien eta biek adierazi zuten aldeko txostena.

Horren guztiaren ondoren, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2017ko uztailaren 18an izandako bilkuran, EKZPa behin betiko onartu zuen. Horrek, batetik, parkearen kudeaketarako jarribide, irizpide eta gidalerroak ezartzen ditu, NKLTBaren 29.e) artikuluekin bat; eta, bestetik, NKLTBaren 22.5 artikuluekin bat, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremurako kudeaketarako jarraibideak ezartzen ditu. Horiek kontserbazio-helburuetan oinarritzen dira, eta honako hau jasotzen dute: espazioak kontserbazio egoera onean mantentzeko neurri egokiak eta habitat naturalen eta espezieen habitaten narriadura eta eremu hauen izendapenak arazoitu duten espezieengan eragina duten aldaketak saihesteko neurri egokiak.

Foru-organoak Parke Naturala eraentzen duen arau-zatia Eusko Jaurlaritzak Dekretuz onartzeko eta Izki eremuko naturaguneetanak eraenduko dituen dokumentua batera argitaratzeko aurkeztu du. Dekretu honek bi gaiak gauzatzen ditu.

Gainera, adierazi beharra dago eremuak 64/1998 Dekretuak onartutako NBAPa duela, Parke Naturalerako NKLTBaren 4. artikulua ezarritako helburu zehatzak betetzeko eta 33/2016 Dekretuaren II eranskinean jasotako Natura 2000 Sareko gunerako arauak betetzeko. Bi dokumentuak, 33/2016 Dekretuaren Azken Xedapenetatik Lehenengoaren zehaztapenei jarraikiz, beste dokumentu bakar batean bateratzen ari dira. Hori Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da. Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak 2016ko uztailaren 13an Izki Parke Naturaleko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana (NBAP) landu eta prestatzeko prozedurari hasiera emateko eman zuen Aginduak hasitako prozedura baliatzen ari da. EKZPak bi dokumentu horiekin egiten du bat.

Ondorioz, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez, NKLTBaren 22.5 eta 29. artikuluekin bat, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1.– artikulua. – Arau-zatiaren onarpena.

Izki Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arau-zatia behin betiko onartzea. Hori planaren Lehengo Zatiko bigarren atalean dago jasota.

2.– artikulua.– Argitalpena.

Dekretu honen eranskin gisa, Izki ES2110019 Parke Naturalerako, Kontserbazio Bereziko Eremurako (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremuako (BBE) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana eta Kudeaketarako Jarraibide eta Jarduketan Dokumentua osorik argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko maiatzaren 15ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

**I. ERANSKINA****GIDALERROAK**

<b>1. ZATIA. KUDEAKETAREN LABURPENA .....</b>	<b>3</b>
<b>1. XEDAPEN OROORRAK</b>	
1.1. IZAERA .....	3
1.2. XEDEAK .....	3
1.3. HELBURU OROKORRAK .....	4
1.3.1. Biodibertsitatea zaintzeko helburuak .....	4
1.3.2. Garapen sozioekonomikoko helburuak.....	4
1.3.3. Hezkuntza, dibulgazio eta ikerketarako helburuak.....	4
1.4. INDARRALDIA ETA BERRIKUSTEKO BALDINTZA.....	6
<b>2.- NATURA EREMU BABESTUA KUDEATZEKO ARAUAK</b>	
2.1. ZIENTZI ETA IKERKETA JARDUERA.....	5
2.2. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERA .....	6
2.3. BASO JARDUERA .....	7
2.4. EHIZA ETA ARRANTZA JARDUERA .....	7
2.5. ONDARE ARKEOLOGIKOA BABESTEIA .....	8
2.6. PAISAIA BABESTEIA .....	8
2.7. ERABILERA PUBLIKOA .....	8
2.8. ERAIKUNTZAK .....	11
2.9. AZPIEGITURAK .....	11
2.10. ERAUZKETA JARDUERAK .....	11
<b>3.- KUDEAKETA ILDOAK ETA JARDUKETA</b>	
3.1. BIODIBERTSITATEA ZAINZEA .....	13
3.1.1. Funtsezko Elementuak kudeatzeko ildoak eta zaintzeko neurriak.....	13
EC 2.- Larreak .....	21
EC 3.- Zohikatzak .....	24
AEC 4.- Ibaiak eta ibarren inguruneak .....	25
AEC 5.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak .....	30
AEC 6.- Hareatzak.....	32
AEC 7.- Konektibotasuna .....	33
EC 8.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa.....	33
EC 9.- Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritarren kontzientzia.....	35
EC 10.- Gobernagarritasuna .....	36
3.2. ZIENTZI ETA IKERKETA JARDUERA.....	38
3.2.1. Kudeaketa ildoak .....	38
3.3. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERA .....	38
3.3.1. Kudeaketa ildoak .....	38
3.3.2. Jarduketak.....	38
3.4. BASO JARDUERA .....	38
3.4.1. Kudeaketa ildoak .....	38
3.4.2. Jarduketak.....	39
3.5. EHIZA ETA ARRANTZA JARDUERA .....	39
3.5.1. Kudeaketa ildoak .....	39
3.5.2. Jarduketak.....	40
3.6. KULTURA ONDAREA BABESTEIA .....	40
3.6.1. Kudeaketa ildoak .....	40
3.6.2. Jarduketak.....	40
3.7. PAISAIA BABESTEIA .....	40
3.7.1. Kudeaketa ildoak .....	40
3.7.2. Jarduketak.....	41

3.8. ERABILERA PUBLIKOA .....	41
3.8.1. Kudeaketa ildoak .....	41
3.8.2. Jarduketak .....	44
3.9. TOKI GARAPENA .....	45
3.9.1. Kudeaketa ildoak .....	45
3.9.2. Jarduketak .....	45
3.10. PLANIFIKAZIO HIDROLOGIKOA .....	46
3.10.1. Kudeaketa ildoak .....	46
3.10.2. Jarduketak .....	46
3.11. Eraikuntza .....	46
3.11.1. Kudeaketa ildoak .....	46
3.11.2. Jarduketak .....	47
3.12. Azpiegiturak.....	47
3.12.1. Kudeaketa ildoak .....	47
3.12.2. Jarduketak .....	47
3.13. Erauzketa jarduerak.....	47
3.13.1. Kudeaketa ildoak .....	47
3.13.2. Jarduketak .....	47
<b>4.- KUDEAKETA ESTRATEGIA</b>	
4.1. PLANTEAMENDU OROKORRA.....	48
4.1.1. Kudeaketa ildoak .....	48
4.1.2. Jarduketak.....	48
4.2. BABESEKO, BALIABIDEEN ZAINZAKO ETA GARAPENEN PROGRAMA ZEHATZAK .....	48
4.2.1. Natura Ereku Babestuaren Jarraipen Plana.....	48
4.2.2. Erabilera Publikoaren Plana .....	50
4.2.3. Garapen Sozioekonomikoko Programa.....	51
4.2.4. Natura Ereku Babestuko Ehiza Baliabideak Antolatzeko Plana .....	51
4.2.5. Baso Kudeaketako Plan Integrala .....	52
4.2.6. Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala .....	52
4.2.7. Gaztainondoen landaketa zaharrak zaintzeko eta kudeatzeko plana.....	52
<b>2. ZATIA. KARTOGRAFIA ETA GEHIGARRIAK</b>	
<b>5. KARTOGRAFIA.....</b>	<b>53</b>
<b>1. GEHIGARRIA. ERABILERAK MUGATZEAGATIKO KONPENTSAZIO SISTEMA ETA BASO ERABILERARAKO LAGUNTZA SISTEMA .....</b>	<b>53</b>
Aurrekariak .....	53
Helburu nagusia .....	53
Helburu zehatzak .....	53
Aplikazio eremua .....	54
Mota .....	54
Parke natural izendatzen diren ondorioztatzen diren ordainketak eta laguntzak.....	54
Onuradunak .....	54
Prozedura .....	55
Zenbatekoa .....	55
Eskaera .....	56
Landa garapenerako laguntzak.....	56
<b>2. GEHIGARRIA. FUNTSEZKO ELEMENTUEI LOTUTAKO NEURRIEN BALORAZIOA .....</b>	<b>57</b>
<b>3. GEHIGARRIA. ZAINDU BEHARREKO HABITAT ETA BASO ESPEZIE GUZTIAK ZAINZAKO NEURRIAK .....</b>	<b>75</b>

## 1. ZATIA. KUDEAKETAREN LABURPENA

### 1. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.1. IZAERA

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko bigarren Plana onetsi da honako arautegi hauekin bat: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzazko Dekretuarekin (haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legearen testu bategina onartzen da) eta Izki natura parkea izendatzeko 65/1998 Dekretuarekin bat. Plan horretan beharrezko ezarpenak jasotzen dira, betiere Natura Eremu Babestuaren adierazpena arrazoitu zuten helburuei jarraituz; izan ere, eremua Natura 2000 Sareko Natura Parke, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBE) izendatua izan da.

#### 1.2. XEDEAK

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren xedeak honakoak dira:

- Erabilera eta jarduerak kudeatzeko ildoak eta neurriak definitzea eta garatzea, bai eta natura baliabideak mantentzea eta lehengoratzea bermatzeko beharrezko jarduketak ere, Natura Eremu Babestuaren berezko helburuak beteko direla bermatze aldera, hala nola naturaren fenomenoak interpretatzea, ingurumen heziketa, natura eremuaren erabilera eta gozamen antolatua, ikerkuntza eta Natura Eremu Babestuan eta haren eraginpeko ingurunean bizi diren erkidegoen garapen sozioekonomikoa.
- Natura Eremu Babestuaren balioen kontserbazioaren, natura baliabideen zentzuzko kudeaketaren eta inguruneko garapen iraunkorraren arteko bateragarritasuna, koherentzia eta sinergiak bilatzea.
- Erabilera eta aprobetxamendu tradizionalei laguntza eskaintzea, bai eta berritzaileei ere, baldin eta eremua Natura 2000 sarearen barruan izendatzea eta onartzea eragin zuten balioei lotutako paisaiak eratzen edo mantentzen badituzte, betiere administrazioaren eta jabeen arteko lankidetzarako mekanismoak txertatuz, hala badagokio.
- Natura Eremu Babestuaren barruan garatzen diren jarduera sozioekonomikoak arautzen dituzten arau orokorrak zehaztea.
- Erabilera publikoaren erabilera antolatzea, gune desberdinen babesa eta haien potentzialtasuna bateratzeko, betiere hezkuntza, atsedan eta aisialdi eremu gisa.
- Natura Eremu Babestu eta haren ingurunearen arteko erlazioen marko harmoniatsua erraztuko dituzten neurriak sustatzea.

### 1.3. HELBURU OROKORRAK

Natura Baliabideak Antolatzekeo Planean ezarritakoaren ingurumarian, eta, betiere Izki Natura 2000 sarearen Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko dekretuan ezarritako kontserbazio helburu eta arauen gehigarri gisa, honakoak dira Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren helburuak:

#### 1.3.1. Biodibertsitatea zaintzeko helburuak

- 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean aipatutako habitat naturalentzat eta zuzentarau horren II. eranskinean zein 2009/147/EE Zuzentarauan azaltzen diren espezieen populazioentzat onuragarria den zaintze egoera mantentzea edo berrezartzea. Horiek guztiak Izki Natura Parkean daude.
- Eskualde interesa duten flora eta fauna espezieen populazioentzat onuragarria den zaintze egoera mantentzea edo berrezartzea, natura parkearen eskualdeko eta tokiko berezitasunak kontuan hartuta
- Konektibotasun ekologikoa bultzatzen duten paisaiaren elementuen funtzionaltasuna mantentzea edo berrezartzea, bai tokikoa bertakoa, bai Natura 2000ko gainontzeko tokietakoa.

#### 1.3.2. Garapen sozioekonomikoko helburuak

- Eremuko biztanleentzako zerbitzu eta ekipamendu maila egokiak lortzea, azpiegiturak sortuz, beharrezkoa izanez gero.
- Jarduera tradizionalak hobetzea eta natura ondarearen elementuak eta biodibertsitatea zaintzeko eskaerekin bateragarriak diren beste batzuk sustatzea, beharrezkoak diren ordainen bidez.
- Ekoizle eta enpresariak kontzientziatzea natura ondarearen elementuak eta biodibertsitatea zaintzearekin bateragarria den moduan erabil ditzaten, aprobetxamenduak mantentzeko eta natura ingurunea zaintzeko.
- Inguruan kokatutako edo kokatu beharreko eraikinek eta azpiegiturek sor ditzaketen eraginak gutxitzea eta zuzentzea, ingurunean eta paisaian integratzen direla bermatze aldera.
- Tokiko biztanleak natura ingurunea babesteko eta kudeatzeko sortutako jardueretan integratzea
- Landa etxebizitza birgaitzea eta arkitektura ondarea mantentzea.
- Kultura, zientzia, pedagogia eta aisialdiko ekimenak bultzatzea.

#### 1.3.3. Hezkuntza, dibulgazio eta ikerketarako helburuak

- Biztanleak natura ingurunera eta landa jardueretara hurbildu nahi dira, ingurune hau hobeto ezagut dezaten eta natura zaindu beharraz jabe daitezen.
- Jendea Parke Naturalera hurbiltzea sustatzea, informazio eta zabalkunde sistema bat ezarriz, horrela eremuak dauzkan paisaia, kultura eta natura mailako balioak ezagutu ahal izateko, baina era berean eremuaren izaera gordez.

- Natura parke babestuaren baliabideak bai eta haren erabilerak eta denboran izandako bilakaera ere aztertzeke eta ikertzeke jarduerak sustatzea.
- Natura Ereku Babestuan erabilera publikorako aukera ematen duten programak, zerbitzuak eta ekipamenduak garatzea
- Erabilera publikoko jarduerak sor litzaketan balizko eraginak gutxitzea.
- Erabilera publikoa bisitariarentzat ziurra izan dadin beharrezkoak diren ekintzak abian jartzea.
- Ingurumen hezkuntzako programak garatzea natura eta kultura ondarea hezkuntza baliabide gisa erabilia.
- Azterlanak eta ikerketak egin ditzaten sustatzea, helburu gisa inguruaren kudeaketa erraztea, balioen, arazoaren eta balizko konponbideen ezagutza sakontzea duten heinean.
- Azterlanetan eta ikerketa proiektuetan lortutako informazioaren antolaketa eta hedatzea hobetzea eta, zehazki, horren eskuragarritasuna natura parkearen kudeaketan aplikatu ahal izateko

#### **1.4. INDARRALDIA ETA BERRIKUSTEKO BALDINTZA**

Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan honek gehienez ere bost urteko indarraldia izango du, eta epe hori amaitu baino lehen berrikusi ahal da, hura idazteko irizpideak aldatzen badira eta/edo proposaturiko jardunek ez badituzte lortzen planteaturiko xedeak.

Baldin eta Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren indarraldia igarota, ez bada behin betiko onartu hura berrikustea, haren xedapenak aldi batez aplikatzen jarraituko dira, harik eta haren berrikuspenean behin betiko onartu arte.

## **2.- NATURA EREMU BABESTUA KUDEATZEKO ARAUAK**

Biodibertsitatea zaintzearekin erlazionatutako arautegia martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuaren II. eranskinean zehazten da; izan ere, haren bidez, Izki (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Ereku (HBBE) izendatzen da eta beharrezko kontserbazio neurriak jasotzen dira. Jarraian, jardura sektorialak arautzen dira.

### **2.1. ZIENTZI ETA IKERKETA JARDUERA**

- a) Zientzi edo ikerketa jarduerak baimendu ahal da horiek Natura Ereku Babestua kontserbatzeko helburuak oztopatzen ez dituztenean. Baimena jaso ahal izateko, eskaera egokia egin behar da. Eskaera behar bezala arrazoitutako ikerkuntza programa batean oinarritu behar da.

- b) Jarduera zientifikoak edo ikerkuntzakoak egiteko, igarotzeko baimen bereziak eman ahalko dira, materialak eta pertsonak garraiatze aldera igarobide mugatuetan barrena.

## 2.2. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERA

- a) Larreak eraldatu eta hobetzeko edozein jardun Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralaren esparruaren baitan egingo da, eta, aldez aurretik, Natura Eremu Babestuaren Organo Kudeatzaileak emandako baimena behar izango da.
- b) Mendietako erakunde titularrek larreak erregulatzeko ordenantzak eman beharko dituzte, Natura Eremu Babestua zaintzeko eta kudeatzeko ildoei eta tresnen arauari men eginez. Artzaintza egutegiak urtero berrikusiko dira eta aldatu ahalko dira klimaren egoeraren arabera edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoien arabera. Horretarako, NEBren Organo Kudeatzaileari eskatu beharko diote egutegia aldatzeko; organoak horren aldeko irizpena eman beharko du, aldaketa egin ahal izateko.
- c) Larreak hobetzeko helburuarekin egiten diren sastraka garbiketetan, aintzat hartuko da paisaia izango den eragina. Sestra kurbekiko perpendikular diren lerro zuzenak saihestu egingo dira. Halaber, sastraka garbiketak mosaikoan egingo dira, larreak hobetu nahi diren tokiko sasitzaren %100 ez garbitzeko. Eremuan garbitu beharreko kopurua Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralak zehaztuko du.
- d) Natura Eremu Babestuko udalek beren mendi publikoetan bazkatzen diren abereen erregistroa edukiko dute, eta baita haietan instalatutako erlauntzen erregistroa ere. Kanpaina bakoitzean Natura Eremu Babestuko Organo Kudeatzaileari jakinaraziko zaio zeintzuk diren erregistratutako abere mota eta kopuruak Larre publikoetara sartuko diren abelburu guztiak erregistratu behar dira, haien adina edozein dela ere.
- e) Ahuntzekiko artzaintza 11/2007 Foru Arauak, mendiei buruzkoa, zuzenduko du. Mendian ahuntzekiko artzaintza baimentzen diren eremua zehatzak mugatuz gero, eremuok uneoro saihestuko dituzte honako gunek: krestoiak flora espezieek okupatutako gunek, karezko urradura bereziak eta harkaitzeko erlaitzak. Izan ere, toki horietan honako espezieak azal daitezke: *Arenaria vitoriana*, *Armeria arenaria* eta *Genista eliasseanenii*.
- f) Identifikatu gabe edo Natura Eremu Babestua zaintzeko eta kudeatzeko tresnen udal ordenantzak edo zehaztapenak betetzen ez dituen abererik aurkituz gero, kendu egingo da. Kentze horretatik eta hura mantentzetik eratorritako kostuak hartutako aberearen titular den pertsonaren konturakoak izango dira.
- g) Izkiko Natura Eremu Babestuko lur publikoetan ohikoa ez den beste abere mota bat erabiltzeko, hau da, ardia, zaldia, behia, ahuntza eta erlezaintza ez den ganadua edo jarduera edukitzeko, Organo Kudeatzailearen baimena beharko da.
- h) Debekatuta dago drainatzeak, luberriak, landaketak, nekazaritza eta kimika ekarpenak (pestizidak, herbizidak, ongarriak, eta abar) eta Organo Kudeatzaileak hezegune hauetarako baimendu ez duen edozein lurzoru edota landaredi nahasmendu egitea. Gauza bera aplikatuko da haren inguruko 30 metroko perimetroan (barruti hidrofiloak, turfofiloak, ubideak eta dolinak).
- i) Lursail publikoetan ongarriak aplikatzeko, Organo Kudeatzaileak erregistro bat edukiko du (kopuruak, datak eta ongarriaren jatorria eta izaera), eta uneoro



bazkaleku izan daitezkeen azalera osoei orokortasunez aplikatzea saihestuko da eta leku zehatzetan egingo da. Produktu hauek ezin izango dira aplikatu hezeguneen, ur ibilbideen eta dolinen inguruan 30 metrotik beherakoa den zerrenda batean (sasitzak eta larreak).

- j) Berrereiteko jarduerak gutxienez 3 hazi espezie autoktonoren nahasketarekin egingo dira, larre bakoitzean berezkoak direnak gorabehera (sasitzak eta larreak).

### 2.3. BASO JARDUERA

- a) Parkeko gaztainondo zahartuen oinetan egiten diren jardunetarako beharrezkoa izango da Organo Kudeatzailearen baimena edukitzea (gaztainondo zaharren landaketak).
- b) Basoko lanak egin, pistak eta bideak zabaldu edo konpondu edota makineria astuna erabiltzea exijitzen duen edozein jarduera aurrera eraman bitartean, makineria hori ibai arroen gaineratik igarotzea saihestuko da. Hori horrela izango da eremuaren Organo Kudeatzaileak beren-beregi emango duen baimenik ez badago; izan ere, organo horrek baimendu ahalko du ibai arroak zeharkatzea, baldin eta horrek biodibertsitatea zaintzeko arriskurik ez badakar eta bestelako igarobiderik ez badago.

### 2.4. EHIZA ETA ARRANTZA JARDUERA

- a) Natura Eremu Babestuaren mugen barruan ez da kirol arrantza baimentzen, horretarako Organo Kudeatzaileak beren-beregi emandako baimenik ez badago; organo horrek arrantza jarduerak baimendu ahalko ditu, baldin eta gaitasun piszigenikoa errespetatzen bada eta biodibertsitatearen kontserbazioa kolokan jartzen ez duten arrantza modalitateak erabiltzen badira.
- b) Natura Eremu Babestuaren barruan ez dago baimendurik:
- Ehiza larriaren praktikan perdigoiak eduki eta erabiltzea. Ehiza mota horretarako bala da erabili ahalko den gauza bakarra.
  - Ehiza xehearen praktikan bala eduki eta erabiltzea. Horretarako, 4,5 mm-ko edo gutxiagoko perdigo kartutxoak bakarrik erabili ahalko dira.
- c) Ehizakoa soilik den jarduera alde batera utzita, Parkeko Kudeaketaren Arduradun den Organoak espezie batzuen ale kopuru jakin bat harrapatu ahalko du, hurrengo behar hauek agertuz gero, betiere:
- Mehatxupean dauden animalia edo landare espezieak babestea.
  - Osasun arazoak edo arazo genetikoak saihestea.
  - Pertsonen eta beren ondasunen kalte garrantzitsuak saihestea.
- d) Natura Eremu Babestu osoa Ehiza Araubide Bereziko Aldetzat hartuko da
- e) Aisialdi erabilerako instalazioak segurtasun zonatzat hartuko dira, eta haien babes koroa bat emango zaie. Koro hori, gutxienez, haien inguruko 50 metroek eratuko dute (parketxeak, bidezidor sarea, behatokiak, aisialdi eremuak, eta abar) Azken horri dagokionez, jarduera zinegetikoaren segurtasuna hobetzeko helburua egonez gero, Organo Kudeatzaileak salbuespen gisa baimendu ahalko ditu jasotako proposamenak, betiere alde aurretik egin beharreko eskaera zehatza dagoenean.

- f) Joan-etorri askeko sarrera saretik kanpora, ehiza jarduerekin lotutako ibilgailuek, zirkulatu eta aparkatzeko, Organo Kudeatzaileak emandako baimen egokia beharko dute. Ibilgailu horiek horretarako egokitutako eta seinalez hornitutako zonetan aparkatuko dute.
- g) Urtean behin, ehiza esparruetatik eskatzen badute, Organo Kudeatzaileak motordun ibilgailuen joan-etorriak baimenduko ditu Natura Ereku Babestuan ehizatzeke.
- h) Migratzaile diren espezieak ehizatzeke postuak erabiltzen dituzten ehiztariek horiek eta haien ingurunea garbitu beharko dituzte, kartutxo zorroak eta sor daitezkeen bestelako hondakinak bilduz.
- i) Legez baimendutako usotarako txabola eta postuak behar bezala identifikatuta eta seinaleztatuta egon beharko dira, behinik behin ehiza garaiak iraun bitartean.
- j) Txabolak eta postuak eraiki edo konpontzeko eta egitura edo kokalekua aldarazteko, landarediari ekarritako eraginak barne (inausketak, mozketak, eta abar), baimena eduki beharko dute Organo Kudeatzailearen aldetik.
- k) Usotarako txaboletan sua erabiltzea Organo Kudeatzaileak baimendutako ontzietan bakarrik egingo da.

## 2.5. ONDARE ARKEOLOGIKOA BABESTEA

- a) Lur mugimenduak barruan hartzen dituen jardun baimengarri orok kontuan izan beharko du aztarnategi arkeologikorik dagoen eta aztarnategi horiek duten babes lerruna. Kasu horretan, aztarnategiak onik zaintzeko beharrezkoak diren kautelazko babes neurri guztiak hartu beharko ditu.
- b) Organo Kudeatzaileak Kultura Sailari jakinaraziko dizkio Natura Ereku Babestuaren Kultura Baliabideen Katalogoan sartutako baliabideak lehengoratu edo zaharberritzeko baimentzen diren proiektuak

## 2.6. PAISAIA BABESTEA

- a) Natura Ereku Babestuaren barrualdean, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak jasotzen duen moduan, paisaia eraldatzea dakarren edozein jardura egiteko baimena beharko da Parkeko Organo Kudeatzailearen aldetik. Horretarako, Organo Kudeatzaileak berariazko txosten bat egingo du jardura baino lehen, jardura horrek paisaiari ekarritako dizkion eraginak baloratzeko eta, hala badagokio, hartu beharko diren neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

## 2.7. ERABILERA PUBLIKOA

- a) Natura Ereku Babestuaren erabilera publikoa honela hartuko da: parkeak eman beharreko aisialdi edo turismo jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen multzoa, bisitariak bere balio natural eta kulturaletara hurbiltzeko helburua betetzeko. Antolatuz, segurtasunez eta balio horiek informazioaren, ondarearen interpretazioaren eta ingurumenaren alorreko hezkuntzaren bitartez zaindu eta barreiatuko direla bermatuz garatuko da.

- b) Erabilera publikoaren plangintza, betiere, natura baliabideak onik zaintzearen mende egongo da, haiek lehenetsitako helburu baitira.
- c) Joan-etorri askeko bideak izan ezik (errepideak, herriguneak eta aisialdiko eremuetan sartzeko errepideak), debekatuta dago Parkearen barruan motordun ibilgailuak erabiltzea, Organo Kudeatzaileak berariaz baimentzen ez badu.
- d) Erabilera publikoarekin zerikusia duten jarduerak egiteko, Natura Eremu Babestuko Organo Kudeatzaileak igarotzeko baimen bereziak eman ahalko ditu materiala eta pertsonak garraiatzeko igarobide mugatuko bideetatik zehar.
- e) Organo Kudeatzailearen baimena behar duten erabilera publikoko jarduera eskaera guztiak Natura Eremu Babestuaren zuzendaritzari bidaliko zaizkio, gutxienez bost lanegun lehenago. Ematen diren baimenak eskatzailearen NANarekin batera erakutsi behar dira, basozainek eskatzen dituzten kasuan.
- f) Jarduera hauek debekatuta daude:
- Baimenik gabe fauna edo florako edozein ale biltzea edo horien zatiak. Sua egiteko prestatuta dauden lekuetatik kanpo sua piztea.
  - Ihesbidea libre daukaten ibilgailuak erabiliz (motorrak, quadak eta abar) Natura Eremu Babestuaren lasaitasuna eta atsedena urratzea.
  - Natura Eremu Babestuan 30 km/h baino azkarrago ibiltzea, joan-etorri libreko errepideak izan ezik
  - Aparkatzeko seinaleztatu diren eremuetatik kanpo lurzoru urbanizaezinean ibilgailuak aparkatzea.
  - Natura Eremu Babestuan egoteko eremuetan (aisialdiko eremuak eta erabilera publiko intentsiboko beste zona batzuk) txakurrak edo bestelako etxeko animaliak lotu gabe edukitzea. Bereziki arriskutsutzat jotako txakur arrazak (EAEn txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuari jarraiki) lotuta eta muturrekoarekin egon beharko dira uneoro. Lotu gabe dauden txakurrek artaldeei eragozpenak sortzea saihesteko, debekatuta dago txakurrak lotu gabe egotea larreetan artaldeek bertan egiten duten denboran. Salbuespena beren lana egiten ari diren artzain txakurrak izango dira.
  - Natura Eremu Babestuko lurralde osoan egurra moztu eta biltzea; salbuespena Mendiei buruzko Foru Arauan onartutako mozketak izango dira
- g) Natura Eremu Babestuko ekipamenduak diseinatzeko eta funtzionatzeko oinarrizko araua bideragarritasuna eta eraginkortasuna izango dira. Mantentze kostuak ahalik eta gehien murriztuko dira Haien eraikuntza eta kokapena ingurunearen ezaugarrien arabekoak izan behar dira. Ahal den neurrian, dagoeneko dauden eraikuntzak erabiliko dira, eta batez ere ingurumen irizpideak eta funtzionaltasuna lehenetsiko dira.
- h) Erabilera publikoko azpiegiturei dagokienez:
- Bisitariak neurritz gain bertaratzearen ondorioz zaintza edo kutsadura arazoak antzemango balira, Natura Eremu Babestuko Organo Kudeatzaileak neurri hertsatzaileak hartu ahalko lituzke gai honetan.
  - Bizikletaz edo zaldiz, Natura Eremu Babestuko pistetan eta bide nagusietan barrena ibili ahal izango da soilik, eta ez horietatik kanpo, Organo Kudeatzaileak ez badu baimentzen. Dena den, oinezkoek beti izango dute lehentasuna; beraz, oinezkoen eta bizikleta zaltetuen edo zaldiz datozenen artean arazorik sortuz gero, aukera egongo da, zati

batzuetan edota bide sare osoan, bizikletaz edo zaldiz ibiltzea mugatu edota debekatzeko

- Kirol lehiaketa eta erakusketak egiteko eta jende askorentzako ekitaldi bereziak antolatzeke, Natura Ereku Babestuaren mugen barruan, Organo Kudeatzailearen baimena beharrezkoa izango da. Organo horrek beharrezkotzat jotzen dituen muga guztiak ezarri ahalko ditu: lekua, gehieneko parte hartzaile kopurua, eta abar
- Natura Ereku Babestuan debekatuta dago balizekin eta pinturekin edo kendu ezin daitezkeen elementuekin ibilbideak markatzea. Eremitik kanpoko taldeek antolatutako ibilbideek, seinaleztatzea ezinbestekotzat jotzen bada, hango Organo Kudeatzailearen baimena eduki beharko dute eta baimenean markatu beharrek bidea, pertsona kopurua eta egingo den data zehatza jasoko dira. Baimendutako taldeak berak bidetik igarotzean kendu egin beharko du seinaleztapen oro.
- Natura Parke Babestuaren barruko edozein ibilbide balizen bitartez edota foiletoren edo bestelako argitalpenen bitartez sustatzeko beharrezkoa izango da haren Organo Kudeatzailearen onespina edukitzea. Organo horrek, mendi ibilbideak garatzean esku hartzen duten elkarteekin batera, zaindu egingo du ibilbide hori diseinatu eta tratatzerakoan beharrezko koherentzia mantentzen dela. Helburua hura eremuko ibilbide sarean sartzea izango da eta, ahal bada, baita Mendi Federazioek ofizialki onartutako PR eta GR sareetan ere (EAEn mendi ibiliak antolatzeari buruzko 79/1996 Dekretuan xedatutakoa gorabehera).
- Bidezidorren batean igarotzeko arazoak igarriko balira, Natura Ereku Babestuko Organo Kudeatzaileak haren erabilera mugatu ahalko die ibilgailu motordunei. Muga hori erabat lehengoratu artekoa izango da.
- Jendeak erabiltzeko eta Natura Ereku Babestuko ez den edozein informazio ekipamendu jartzeko, beharrezkoa izango da Organo Kudeatzailearen baimena.

i) Jolas, kirol eta aisialdi jardueri dagokienez.

- Onddoen, landareen eta basafruituen aprobetxamendua 89/2008 Foru Dekretuak arautzen du.
- Natura Erekuaren kudeaketaz arduratzen den organoak neurri murriztaileagoak ezarri ahalko ditu, betiere populazioen egoera edo aurreko edo bestelako aprobetxamenduen eskaria aintzat hartuz.
- Sukaldaritzako interesik ez duten onddoak biltzeko edo horien bilduma egiteko edo bestelakoetarako, aldeztatik Organo Kudeatzailearen baimena beharko da.
- *Narcissus* generoko edozein espezieren erraboilak edo loreak legez kanpo biltzea debekaturik dago.
- Kanpaldi librea. NEBn baimenduta dago gau batez kanpatzea ilundu baino bi ordu lehenago hasiz eta egunak argitu eta bi ordu igaro arte. Salbuespena erreserba integraleko, erreserbako, babeseko eta zaintze aktiboko zonak izango dira.
- Korresko Aisialdi Erekuaren inguruan antolatzen diren kanpaketentzako baimenak mugatu egingo dira, horrelako jarduerentzako gutxieneko ekipamendu batzuk instalatuz.
- Ez da onartzen Apinaiztik kanpo eskalada egitera zuzendutako materialak zabaltzea eta argitaratzea.
- Baimena izango dute espresuki debekatzeko ez diren jarduera guztiek, ez badaude nabarmenki Natura Ereku Babestuaren helburuen aurka.

## 2.8. ERAIKUNTZAK

- a) Aplikatzekoa den arautegi urbanistiko eta sektorialean ezarritakoari kalterik egin gabe, Natura Ereku Babestuko eraikuntza berriak honakoak baizik ez dira izango (betiere alde batera utziz NBAPren arabera hiri eremu eta azpiegiturak eta landa gunek):
- Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza ustiatzeko edo baimendu daitekeen beste edozein jarduerari uztarturikoak, horiek beharrezkoak badira eta lurzorua erabilerari lotuta badaude.
  - Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basozaintzako landa izaerako transformazio industri txikiarekin lotura dutenak.
  - Eremuaren ekipamenduarekin eta erabilera publikoarekin zerikusia dutenak, horiek administrazio publikoek sustaturikoak badira, Parkeko Organo Kudeatzailearen baimen espresa badute eta koherentzia mantentzen badute haren helburuekin.
  - Natura Ereku Babestuaren lurraldearen barruan halabeharrez kokatu behar diren sistema orokorrekin edo onura publikoko beste batzuekin zerikusia dutenak.
- b) Aipatutako lehenengo bi erabilera motetan sartutako eraikin bat eraiki edo zabaltzeko edozein baimen eskaerarekin batera, Arabako Foru Aldundiko zerbitzu eskumendunaren aldeko txostena aurkeztu beharko da. Aldez aurretik, gainera, Natura Ereku Babestuko Organo Kudeatzaileari baimena eskatu beharko zaio. Txostenak egiaztatu beharko du nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako ustiapen hori bideragarria dela, eta egin nahi den eraikuntza bat datorrela ustiapenaren beharrezanekin.
- c) Eraikin zaharrak eraisteko edo berritzeko lanak eta eraikinetan intsektu xilofagoak tratatzeko intsektiziden erabilera aztertu behar izan dute aldez aurretik teknikariek, kolonia interesgarriren bat lurperatuta geratzea edo galtzea saihestu ahal izan dadin (Fauna - Kiropteroen komunitatea).
- d) Salbuespen gisa, Natura Ereku Babestuko zerbitzuei lotutako egoitza erabilerak edo hark baimendu dituen eta langile arduradunen presentzia iraunkorra exijitzen duten erabilerak baimendu ahalko dira.

## 2.9. AZPIEGITURAK

- a) Ibilgailu astunei debekatzen zaie zirkulatzea, betiere, bide sareari kalte garrantzitsuak eragin diezazkizketen baldintzak gertatzen badira (egun euritsuak, ardatzeko karga gehiegizkoa).
- c) Ez da baimenduko energia ekoizteko edota garraiatzeko instalazio berririk, ezta komunikazioetakoak ere, salbu eta Organo Kudeatzaileak frogatutzat ematen badu ez dutela beste baliabide batzuen zaintza kaltetzen

## 2.10. ERAUZKETA JARDUERAK

- a) Auzotarrek, harri koskorak ustiatzeko, Natura Ereku Babestuko Organo Kudeatzailearen baimena behar izango dute. Honako baldintza hauek bete behar ditu:
- Materialak erauzteko lanek ez diote eragin beharko ez azalerari ez Natura Ereku Babestuan zaindu beharreko elementuen kontserbazio egoerari.

Horretarako, erauzketa jarduerak egitea saihestuko da fauna espezieen ahultasun gehieneko aldietan (ugalketa aldia). Halaber, intereseko habitatetan ohikoa den landaredia eraldatzea saihestuko da.

- Erauzketa eremuan materiala prozesatzea (bahetzea, txikitzea, eta abar) saihestuko da.
- Erauzketak aurrera egin ahala, lurzorua kendu egin beharko da selektiboki, eta lur begetalak ondoren lehengoratzean erabiltzeko dituen aukera guztiak gorde.
- Behin erauzketa amaituta, eragindako zona modelatu egingo da, ezpondak arinduz (gehieneko maldaren proportzioa horizontaleko bi bertikaleko bateko izango da -2h:1b-) eta jarduerak sortutako zokoak deuseztatuz. Inguruneko morfologian lehengoratutako zonak sartzea bilatu behar da, eta, aldi berean, bat-batean sortzen den landaredia jartzea erraztu.
- Higadura eta karkabak agertzea saiheste aldera, agregakinen erauzketa lanak amaitu eta gero tokia landareztatu egingo da. Horretarako, zonan berezkoak diren belar espezieak ereingo dira eta zuhaixka espezieak landatuko.
- Eragindako zonetara iristeko erabiltzen diren bide publikoak erabilerako baldintza ezin hobetan mantendu beharko dira, hondatzea galaraziz. Gauza bera bete beharko da erabilera zailtzen duten okupazioen kasuan. Uneoro, jatorrizko trazatua mantendu beharko da, eta hasierakoaren azpitik ez dagoen zaintze egoera eduki.

### 3.- KUDEAKETA ILDOAK ETA JARDUKETA NEURRIAK

#### 3.1. BIODIBERTSITATEA KONTSERBATZEA

##### 3.1.1. Funtsezko Elementuak kudeatzeko ildoak eta kontserbatzeko neurriak

#### 1.FE- Basoak

Helburuak eta jarduketak	
Amaierako 1. helburua	<b>Basoen egitura eta funtzio baldintzak hobetzea eta tokian tokiko banaketa esparruari eta horiei lotutako flora eta fauna populazioei eustea.</b>
1.1 Helburu operatiboa	<b>Ameztien banaketa eremuaren aldeko egoerari eustea Izkiko KBE/HBBEn.</b>
Ildoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ameztiak gaur egun okupatzen duen azaleraren mantentzea sustatzea bestelako egoera edafiko, topografiko eta mikroklimatikoekin eta antzekoekin kontaktatzen den intereseko bestelako habitat batzuei kalterik egin gabe, harizti azidofiloen formazio gazteagoen kasuan izan ezik, azken horien hazkundera bultzatzen ari baita hariztien formazioen itzalpean.</li> <li>- Beharrezko neurriak hartzea ametz arrunteko masa nagusiaren barruan sartutako luberriak lehengoratzeko, horiek iraungitzen direnean berritzea saihestuz eta landaredi naturalerantz lehengoratzeari ahalbidetuz (ameztiak eta <i>Q. robur</i>-eko luberriak).</li> <li>- Abeltzaintza eta artzaintza erabilera tradizionala modu antolatuan eramango da aurrera, naturalaren antzeko egiturazko konplexutasunari laguntzeko.</li> <li>- Mendi publikoak antolatzeko plan eta proiektuak edo haien berrikuspenak egingo dira «Mendiak Antolatzeko Proiektuak» gidaliburuan ezarritako irizpideen arabera. Eremu babestuak zaintzeko tresnak (Europarc 2013); biodibertsitate zaintzeko eta hobetzeko eskakizun berriei egokituko zaizkie, honakoak jasoz: helburuak, adierazle neurgarriak eta neurri zehatzak, betiere baso dibertsitatea babesteko, basoen naturaltasuna eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuen prestazioa bermatzeko. Horiek izango dira antolaketa eremu publiko osoko plan edo proiektuaren lehenetsutako helburuak. Bestek beste, honako kontsiderazioak hartuko dira kontuan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Baso kudeaketa bultzatzea natura ingurunearen iraunkortasun eta kontserbazio irizpideen arabera, betiere Natura Eremu Babestuaren kontserbazio helburuak aintzat hartuz.</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"><li>b) Baso komunitate autoktonoen egiturazko konplexutasun zehatza areagotzera zuzendutako neurriak abiaraztea.</li><li>c) Multzoak egitura irregularreko goi mendi bihurtzeko bultzada ematea, oinez oin edo basotxoak eratuz.</li><li>d) Ibai habitatekin kontaktuan dauden ameztietan masen heldutasun maila handiagoa sustatzea.</li><li>e) Lurraldean garatzen diren erabilerak eta aprobetxamenduak plangintzan jasotzea, arreta berezia jarriz zuraren ekoizpenean, artzaintzan eta balio naturalen hobekuntzan eta kontserbazioan.</li><li>f) Adineko aleak errespetatzea eta kontserbatzea, bai eta hondaturik edo hilik daudenak ere. Proportzioa masaren dentsitatearen eta osasun egoeraren arabera izango da.</li><li>g) Esku hartzerik jasango ez duten eremuak ezartzea.</li><li>h) Zur hilaren presentzia sustatzea lurrian eta oinean, joera honakoa lortzera zuzenduz: gutxienez 40 m<sup>3</sup>/ha. Aldez aurretik egondako zur hilaren hondakinak errespetatzea.</li><li>i) Bete beharreko zereginetan zuhaixka eta zuhaitz espezie laguntzaileak errespetatzea.</li><li>j) Masa autoktonoen eta haien eta ibaien arteko masen jarraipena sustatzea.</li><li>k) Baso zereginen egutegia egokitzea fauna espezien arabera; horrela, zeregin horiek ez dira beteko batasunaren edo erregioaren intereseko fauna nemoralaren kalteberatasun epean.</li><li>l) Hondatzeko arriskua duten zuhaitziak identifikatzea eta prebentziorako edo kalteak konpontzeko neurriak zehaztea (itxiturak, abeltzaintza zama arautzea, basoberritzea, eta abar).</li><li>m) Artzaintzan jarduteko egutegia, nekazaritza kargak eta aprobetxamendurako azalerak zehaztea eta horiek bat etortzea Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralarekin (eremu osoari begira idatzi beharrekoa).</li><li>n) Zuhaitzi bilakatzekotan dauden lahardi eta larreen azalerak identifikatzea, baita zuhaitzi bilakatzeko bidean daudenak kontserbatzeko neurriak ere, hala badagokio.</li><li>o) Baso Antolaketarako Plan Teknikoen jarraipen eta berrikuspen fasean basoen naturaltasunaren indizea txertatzea. Indize konposatu horrek gutxienez alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoan oinarrituta).</li><li>▪ Basoko hegaztien egoera eta joera.</li><li>▪ Koleoptero saproxilikoaren ugaritasuna eta dibertsitatea.</li><li>▪ Basoko kiropteroen ugaritasuna eta dibertsitatea.</li></ul></li></ul>
--	---



	p) Baso inbentarioaren diseinuan jasoko dira basoen kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko datuak.
Neurriak	1. Arestian aipatutako ildoak jasoko dituen plana prestatuko da, Basoa Kudeatzeko Plan Integrala, hain zuzen.
1.2 Helburu operatiboa	<b>KBE / HBBEko ameztietan eta pagadietan geruzapena, dibertsitate zehatza, egur hilaren presentzia eta bestelako egitura eta funtzio balioak handitzea.</b>
Ildoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mendi altu eta irregularren garapena bultzatzea gaur egun dauden multzoetatik abiatuz, sexu ugalketa aldeztuz begetatiboaren aldean, hori ameztiaren ezaugarria baita.</li> <li>- Baso habitaten aldeko kontserbazio egoera lortzeko beharrezko egitura baldintzak eta baldintza funtzionalak ezartzea eta baso kudeaketa helburu horietara bideratzea.</li> <li>- Beste zuhaitz eta zuhaixka espezie batzuen agerpena sustatzea (gurbea, gorostia, eta abar), baita oihanpearen agerpena eta basoaren egitura aniztasuna ere (hariztiak).</li> <li>- Ipurtika hariztiaren erreserbaren erakunde titularrekin akordio bat sustatzea, gaur egungo oinak eta bilakaera naturala kontserbatzeko gune bat ezar dadin, eta zehaztutako perimetroaren barruan gutxienez 20 urteko epea bermatzea mozketarik gabe.</li> <li>- Gaztainondo zaharren kontserbazioa bultzatzea epe luzean, haien jabeekin akordioak sustatuz, babesari begirako neurriak aurrera eramateko.</li> <li>- Larretutako zonetan, landa guneen inguruan artzaintzari zuzendutako eremu zaharretan, zuhaitz zaharrenak onik zaintzearen alde egitea, inausketen eta soilketen bitartez.</li> <li>- Urkidien kudeaketa bideratzea basoaren bilakaera naturala ahalbidetzera.</li> </ul>

<p><b>Neurriak</b></p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>2. Zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea; kontuan hartuta, besteak beste, habitat motak, zuhaiztien bilakaeraren egoera, erabilerak eta espezie tipikoen beharrak.</li> <li>3. Gaur egungo zuhaizti motzen eta handien inbentario bat egitea eta epe luzeari begira horiek kontserbatzeko eta kudeatzeko programa bat prestatzea.</li> <li>4. Gaztainondoan landaketa zaharrak kontserbatzeko eta kudeatzeko plana prestatzea eta planaren indarraldiaren 6 urteko epean aurrera eramatea. Plan horretan multzoen kontserbazio egoera definitzea eta mozketak, txertaketak eta tratamendu jarduketak sartzea, gainbehera dauden aleei begira; halaber, horiei lehia egin diezaieketen bestelako espezieen gaineko jarduketak zehaztea (pagoak edo haritzak).</li> <li>5. Ameztiaren barruan <i>Quercus robur</i>-en presentzia aztertzea eta <i>Q. pyrenaica</i>-rekin (<i>Q. x andegavensis</i>) duen hibridazio maila ere.</li> <li>6. Artzaintzak erkameztien multzoen gainean duen ukipen maila zehaztuko duen azterlana prestatzea eta horretan erkameztiak hobetzeko jarduketak zehaztea.</li> <li>7. Izkiko Natura Parkearen Erreserba Integralean sartutako amezti masaren eboluzioa ebaluatzea.</li> </ol>
<p><b>1.3 Helburu operatiboa</b></p>	<p><b>Hagin birsorkuntzaren gainean abereek duten presio negatiboa desagerraraztea eta horrekin adinen egitura hobetzea eta hagin hedadura handitzea.</b></p>
<p><b>Ildoak</b></p>	<p>- Baso lurren eta abeltzaintza ustiapenen jabeekin akordioak sustatzea, abeltzaintzaren jardura antolatzerantz bideratuta, betiere horien presioak hagin birsorkuntzaren garapenean eragin negatiboa duen gunetan.</p>
<p><b>Neurriak</b></p>	<p>8. Haginaren presentzia eta eraberritzea aldeztuko duten jarduketak diseinatzea eta aurrera eramatea, bereziki aleen dentsitateak potentzialtasuna duen eta orbanen berreskurapen erraza ahalbidetuko duen gunetan (perimetroko hesi partzialak, etab.). Neurri horrek 9580* habitataren kontserbazio egoeran duen eraginaren jarraipena egitea.</p>

	<p>9. Haginen haranean (30TWN3932) prospekzio bat egitea eta hura aztertzea, 9580* habitataren presentzia zehazteko aukera baloratze aldera giro mediterraneoan (azpimediterrenoa/azpiatlantikoa), eta bultzada ematea.</p>
<b>1.4 Helburu operatiboa</b>	<b>Basoetako habitatetan kontserbaziorako interesa duten flora espezieen populazioak eta banaketa hobetzea eta haiei eustea, eta dibertsitatea kontserbatzeko garrantziaren berri ematea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>10. Sei urteko zaintza planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, baso floraren funtsezko elementu gisa definitutako espezieen populazioen eta habitaten egoeraren jarraipen sistematikoa egitea ahalbidetzeko.</p> <p>11. Nartziso espezieen dibertsitatea eta horiek kontserbatzeko garrantzia islatzen dituzten kartelak eta zabalkunde materialak prestatzea, hala bulboen erauzketa eta loreen bilketa prebenituz.</p> <p>12. <i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i>-rentzat eskuragarri dagoen habitateko baso egoerak eta azalera hobetzeko protokolo bat ezartzea, soilguneak zabalduz eta sasitza mehattuz, eta ex-situ-ko ugalketa eta populazioaren ondorengo irmotzea baloratzea.</p> <p>13. <i>Sorbus latifolia</i>-ren ex-situko ugalketarako protokolo bat ezartzea, bai ugalketa begetatiboa bai hazi bidezkoa, populazioaren ondorengo irmotzea ahalbidetzeko.</p>

<b>1.5 Helburu operatiboa</b>	Basoetako habitatetan kontserbazio interesa duten fauna espezieen populazioak eta haien banaketa hobetzea eta mantentzea.
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zur hilaren presentzia areagotzea, bai lurrian bai oinean, enborrak moztuz, mozketen ondorengo motzondoak mantenduz edo zuhaitzak eraztunean josiz.</li> <li>- Ale egokien garapena sustatzea, okil beltzak habiak egin ditzan: 40-50 cm-ko diametroak, enbor lisoak eta adarrik gabekoak, 10 eta 12 metro arteko gutxieneko altuera izango dutenak.</li> <li>- Egin daitezkeen egokitzapen, landareztatze edota birpopulatze jardunak egiteko ezin izango da funtsean landaredi naturalaren egitura aldarazi, eta horien eraketa eta kokapena errespetatu beharko da (Fauna-<i>Dendrocopus medius</i>).</li> <li>- Haritz, pago edo makalen ale egokien garapenari laguntza ematea, bertan okil ertainak habia egin dezan eta elika dadin: ale osasuntsuak, 36 cm-ko diametroa edo handik gorakoak izango dituztenak, bai eta azpi erori edo hilak eta zuloekin ere, 18 cm-koak edo handik gorakoak.</li> <li>- Hurrengo alderdiak aztertuko dituzten azterlanak egiten direla bultzatzea: okil ertaina zergatik hiltzen den edo dituen faktore mugatzaileak, habitataren eskakizunak eta ezaugarriak bai ugaltzerakoan, bai ugaltze osteko sakabanatzean- eta espezie honen gainean eta hauek harrapatzen dituzten espezieen gainean hartzen diren kudeaketa neurriek eduki dezaketen eragina (bereziki basoa eta erabilera publikoa kudeatzeko planak).</li> <li>- Gutxienez ameztia zahartzeko 30 irlaren ezarpena bultzatzea, hektarea batekoak eta 400 zuhaitzetik beherakoa hektarea bakoitzeko. Zona horietan zuhaitz sailen dinamika naturala mantentzeko saiakera egingo da.</li> <li>- Kiropteroen komunitatearen gaineko laginak egiteko teknikak sustatzea, animalien harrapaketa eta erabilerarik gabekoak; hala eta guztiz ere, aleak markatzeko eta jarraitzeko aplikazioaren egokitasuna balioztatuko da, hala nola irrati bidezko jarraipena.</li> <li>- Basoetan soilguneak izango direla bultzatzea, kiropteroen ehiza guneak aldeztuko.</li> <li>- Etxeko katuen aleak askatzea edo izatea saihestea landa guneetatik kanpo (Fauna- <i>Felis silvestris catus</i>).</li> </ul>

<b>Neurriak</b>	<p>14. <i>Cerambyx cerdo</i>, <i>Lucanus cervus</i>, <i>Rosalia alpina</i> eta <i>Euphydryas aurinia</i> espezieen populazio mailak zehaztea populazio errolden bidez sei urterik behin eta haien lurralde banaketa ezartzea Natura 2000 eremuan.</p> <p>15. Koleoptero saproxilikoan eta <i>Euphydryas aurinia</i> lepidopteroaren zenbait populazio pilotu hautatzea eta haien gainean jarraipena egitea bi urterik behin.</p> <p>16. Intereseko eremuen mapa bat prestatzea Izkiko Natura Ereku Babestuko koleoptero saproxilikoan espeziatzen.</p> <p>17. Baso harraparien lurralde ezagun guztien erroldak egitea bi urterik behin, bai eta Natura Ereku Babestuan izan ditzaketen kokalekuenak ere.</p> <p>18. Gehien ikusten diren baso harraparien bikoteen ugalketa parametroak aztertzea, bi urterik behin ugalketa aldagaien gaineko azterlana eginez.</p> <p>19. Izkiko Natura Ereku Babestuko baso harraparien habiak eta baso kiropteroen aterpe nagusiak kontrolatzeko eta zaintzeko plana ezartzea udan. Arreta berezia jarriko da alterazio susmorik egonez gero edo ale helduen hilezkortasuna handituz gero.</p> <p>20. Izkin kontserbatzeko interesik gehien duten pizidoen lurraldeen eta haien kokalekuen gaineko populazio errolda egitea sei urterik behin.</p> <p>21. Okil beltzaren eta okil txikiaren populazioaren errolda zehatza egitea Izkiko Natura Ereku Babestuaren esparruan.</p> <p>22. Funtsezko elementu gisa definitutako baso pizidoen lurralde pilotuak hautatzea eta haien ugalketa parametroen urteroko azterlana egitea.</p> <p>23. Pizidoek okupatzen ez dituzten eta haritzen, pagoen do makalen dentsitate txikiak dituzten gunetan zuhaitzi gazteen soilketak eta sastraken mozketak egitea, baldin eta gunek horiek egokitzat jo badira alde aurretiko azterlanetan.</p> <p>24. Natura Ereku Babestuan okil ertainari buruzko datu basea prestatzea, espeziaren banaketari, ugaritasunari, ugalketari, fenologiari eta hilkortasun edo eragozpen arazoiei buruz.</p> <p>25. Kontserbatzeko interesa duten baso kiropteroen espezieen populazio erroldak egitea sei urterik behin.</p> <p>26. Izkiko Natura Ereku Babestuan baso kiropteroen espezie nagusien kolonia pilotuak hautatzea eta horiek urtero-urtero monitorizatzea.</p>
-----------------	---

	<p>27. Izkiko Natura Eremu Babestuan baso kiropteroen espezieen natura aterpeen erregistroa sortzea. Erregistro horretan aurrera eraman daitezkeen jarduketan ebaluazio eta balorazioa txertatuko da (elikadura gunek eta putzuak egokiak diren, eta abar).</p> <p>28. Aterpe artifizialak instalatzea eta haien jarraipena egitea baso kiroptero nagusiek gaur egun kolonizatu ez dituzten gunetan.</p> <p>29. Glis glis populazioaren ezaugarriak ateratzeko eta horrek izkin duen zaintze egoera argitzeko azterlana egitea. Espezie honentzat, habi artifizialak instalatu eta horien gaineko jarraipena egiteko kanpaina garatzea, hala badagokio.</p> <p>30. Basakatuari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Haren kontserbazio egoera aztertzea.</li> <li>- Basatutako etxeko katu aleak eta landa gunetatik kanpo bizi direnak kontrolatzea.</li> </ul> <p>Bi espezieen, alegia, basakatuaren eta etxeko katuaren arteko harremanak aztertzea Parkean: balizko hibridazioak, gaixotasun transmisioa, lehia, eta abar.</p>
<p><b>1.6 Helburu operatiboa</b></p>	<p><b>Basoko abeltzaintzako eta basoko aprobetxamenduetarako aukerak harmonizatzea eta hobetzea, biodibertsitatearen kontserbazioari laguntzeko, hala nola produktibitate ekonomikoa, eskualdeko nortasuna eta inguruko biztanleen bizi kalitatea hobetzea.</b></p>
<p><b>Ildoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ameztien baso kudeaketarako molde zehatzak zehaztea ahalbidetzen duten azterlanak eta esperientziak sustatzea, haien egitura hobetzeko, ingurumen eginkizunak eta zeregin ekologikoak garatzeko eta aprobetxamenduetan modu egokian eta iraunkorki integratzeko.</li> <li>- Ekoizpen jarduera berritzaileak bultzatzea, baldin eta habitaten kontserbazioarekin eta haien funtzio ekologikoekin bateragarriak badira.</li> <li>- Gaztainadiari balioa ematea gaztainen ekoizle bezala eta ingurumeneko beste onura batzuk ekartzen dituen neurrian (fauna eta floraren euskarria, balio kulturala, eta abar).</li> <li>- KBE / HBBEko eta Izkiko Natura Parkeko funtsezko elementuen kontserbazioaren egoera hobetzen laguntzen duten jarduera ekonomiko tradizionalen garapena sustatzea.</li> </ul>

<b>Neurriak</b>	<p>31. Zaintzaileei zuzendutako prestakuntza ikastaro praktikoak garatzea, sutegietan zuhaitzak markatzeko teknika berriak ezagutzera emate aldera.</p> <p>32. Eremuko gaztainondoen jabeekin eta toki populazioekin lantalde bat sortzea, horien kontserbazio egoera hobetzera zuzendutako jarduketa plan bat abiarazteko asmoz.</p> <p>33. Azterlan bat egitea kontserbazio eta kudeaketa tresnak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.</p>
-----------------	--

## 2. FE- Larreak

<b>Helburuak eta jarduketak</b>	
<b>Amaierako 2. helburua</b>	<b>Batasunaren intereseko larreen azalera, bereziki lehentasunezkoak, kontserbatzea, bai eta haiei lotutako intereseko flora eta fauna espezieen banaketa eremua eta populazioak ere.</b>
<b>2.1 Helburu operatiboa</b>	<b>6210*, 6220* eta 6230* habitaten azalerei kontserbazio egoera onean eustea eta haien ezagutza hobetzea.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izkiko Natura Eremu Babestuko erabilera publikoko mendietan abeltzaintzako erabilera bultzatuko da luberritu beharrezko nekazaritza jardueraren aldean.</li> <li>- Segala edo sastraka garbiketarak kontrolpean (gehieneko maiztasuna 10 urtekoa eta malda gutxi zonenetan) eta azalera murriztetan egin behar dira, txilardi garaienak zainduz eta heterogeneizazioaren alde eginez.</li> <li>- Sastrakak garbitzerakoan, aintzat hartuko da ea zuzentarauaren habitatei eragiten dien ala ez (esaterako 4030, 4090 eta 5110 kodeko habitatak), eta ea eremuan zaindu beharrezko objektuak. Horrela bada, garbitu beharrezko azalera ez dio kalterik ekarriko habitat horien kontserbazio egoerari; hala, Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralek zehaztutako dute zein den sastrakak kentzeko kopuru onargarria.</li> <li>- Artzaintza mistoa sustatuko da (ardiak eta abereak) Natura Eremu Babestuko larreetan.</li> <li>- 6230* habitati dagokionez, ganaduaren presentzia bultzatuko da abeltzaintzako azpiegiturak instalatuz (ur puntuak, gatzak, etab.), degradatuen egon daitezkeen guneetan presioa murriztuz eta erabiltzen ez diren edo aprobetxamendu txikia duten larreen aprobetxamendua aldeztuz.</li> <li>- Abereek larre harritar kaltzikoletara jotzeko duten joera kontrolatu egingo da, bertan gutxi bazkatzen direlako baina</li> </ul>

	<p>asko zapaldu. Artaldean sarrera urtean behin bakarrik egin beharko litzateke, uda hasiera aldera (inoiz ez udazkenean), eta presio ez oso biziarekin. Urte batetik bestera, artzaintza garaia atzeratzen joango da eta lekuak bihurtzen, eta horrek landareen hazi multzoa berritzearen alde egingo du. Artzaintza arin eta denboran mugatu honek aukera emango du neurri handi batean murrizteko higadura arriskua. Edonola ere, abeltzaintza kargak ez ditu inoiz gaintitu behar habitat honen bazka aukera urriak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertako arrazen abeltzaintzaren alde egingo da (ganaduek baino tamaina eta pisu txikiagoa, ur et larre eskakizun baxuagoak, eta abar).</li> </ul>
<p><b>Neurriak</b></p>	<p>34. Izkiko Natura Eredu Babestuaren barruan 6210 habitaten kartografia berrikustea (orkideetan opariak diren larreak), lehentasunezko azpimotak bereizteko lehentasunezkoak ez direnetatik.</p> <p>35. Orkideak ugaltzeko garaian (apiriletik ekainera) artzaintzako gune libreak mugatuko dira 6210* lehentasunezko habitataren banaketa eremuan.</p> <p>36. Jardunbide egokiei buruzko gidaliburua idaztea Natura Eredu Babestuko mendi publikoetako larreen abeltzaintza eta artzaintza aprobetxamendurako.</p> <p>37. Natura Eredu Babestuko mendi publikoetako abeltzaintza eta artzaintza larreen aprobetxamendurako jardunbide egokien gidaliburua argitaratu eta zabaltzea abeltzaintza sektorearen eta toki erakundearen artean.</p> <p>38. Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala prestatzea eta abiaraztea; hala, egoeraren diagnostikotik abiatuta, honakoa zehaztuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Larre moten kalitatea eta produktibitatea.</li> <li>- Larreen aprobetxamenduetarako gune zehatz bakoitzaren abeltzaintza karga onargarria.</li> <li>- Artzaintza unitateen mugaketa eta, beharrezkoa izanez gero, haien arteko txandakatzea, zuhaitzien eta belar habitaten banaketari mosaikoan eusteko.</li> <li>- Egutegia eta artzaintzan jarduteko gutxieneko eta gehieneko egunak, espezieen eta guneen arabera.</li> <li>- Gaur egungo abeltzaintza azpiegiturak aztertzea eta haien hobekuntza premiak (etxolak, askak, gatzontziak, parasitoen kontrako ontziak, hondakinen bilketa).</li> <li>- Larreak sortzeko eta hobetzeko irizpideak; honakoak hartuko dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eraldatzeko moduko azalerak zehaztuko dira.</li> <li>▪ Eraldaketa metodoak zehaztuko dira.</li> <li>▪ Larreak zaintzeko eta hobetzeko moduak zehaztuko dira.</li> <li>▪ Ongarrien dosi gomendatuak eta guneen kareztadurak, baldin eta horiek baimentzen badira.</li> </ul> </li> <li>- Habitata eta abeltzaintza espezieak kontserbatzeko egoeraren jarraipen protokoloa eta adierazleak.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baimen daitezkeen jardunak.</li> <li>- Prebentzio arauak.</li> </ul>
<b>2.2 Helburu operatiboa</b>	<b>Intereseko flora espezieen banaketa eremuari eutsiko zaiola bermatzea eta haien populazioak eta haien gaineko ezagutza hobetzea.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Narcissus generoko espezieko bulbo edo loreen ez-legezko bilketa kontrolatzeko zaintza zereginen gehikuntza sustatzea.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	<p>39. Sei urteko zaintza planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, flora espezieen populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egitea ahalbidetzeko.</p> <p>40. Belardi eta larreetako flora espezieen populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.</p> <p>41. <i>S. humilis</i> zehaztu deneko gunetan <i>Scorzonera aristata</i>-ren ezarpenak kokatzeko prospekzio zehatzak egitea, zehaztapen akatsak baieztatzeke edo baztertzeke.</p> <p>42. <i>Ophrys aveyronensis</i> eta <i>Scorzonera aristata</i>-ren populazio mailaren ezagutza hobetzeko prospekzio zehatzak egitea.</p> <p>43. Pagadien hedadura atzematen bada harkaitzetara eta karezko hormetara, horrek kolokan jar dezake <i>Senecio doronicum</i> subsp. <i>doronicum</i>-en presentzia; hori dela eta, jarduketa eremu zehatzak aukeratuko dira, soilguneak zabaltzeko edota pagadiak kentzeko.</p> <p>44. <i>Scorzonera aristata</i> espeziearen germoplasma biltzea. Material genetiko hori biltzea, erneketa probak garatzea eta hazien bideragarritasuna aztertzea, espezie hori berriro sartzeko edo sendotzeko.</p>
<b>2.3 Helburu operatiboa</b>	<b>Kontserbazio interesik handiena duten ingurune zabaletako harraparien populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea eta mantentzea.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurune zabaleko harraparien habiak dituzten finketako jabe edo maizterrekin akordioak egitea, uzten garaian horiei eragitea saihestu ahal izateko.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	45. Populazio erroldak egitea: Bi urterik behin ingurune zabaleko harraparien lurralde guztietan eta Izkiko Natura Eremu Babestuan kokatzeko izan ditzaketen lekuetan.

### 3. FE- Zohikatzen guneak

Helburuak eta jarduketak	
<b>Amaierako 3. helburua</b>	<b>Izkiko KBE/HBBEko zohikatzen higroguneen kontserbazio orokorra mantentzea edota hobetzea, bai eta hari lotutako floraren populazioak ere.</b>
<b>3.1. Helburu operatiboa</b>	<b>Zohikatzen habitaten mosaikoen aldeko kontserbazio egoerari eustea.</b>
<b>Ildoak</b>	- Ingurune hauetako baldintza hidrikoak mantentzen direla zaintzea (ur fluxuak, ekarpenen ezaugarri fisiko eta kimikoak, eta abar), osorik kudeatuz isuri arrosa.
<b>Neurriak</b>	46. Hezeguneak eta zohikatzen higroguneak kontserbatzeko eta erabiltzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, abeltzaintzako erabilerari, azken egokitzapenari, lehengoratzeko ekintzei (lehortutako guneak berreskuratzea, drainatzeak kentzea, isurketen kontrola...) eta abarri mugak ezartzeko aukera eta komenigarritasuna aztertuz agiri honetan ezarritako lehenetsuneko ekintzak jasoz.
<b>3.2. Helburu operatiboa</b>	<b>Atlantikoko txilardi hezeen 4020* habitataren kontserbazio egoera eta funtzio ekologikoak hobetzea.</b>
<b>3.3. Helburu operatiboa</b>	<b>Zohikatzen guneetako flora espezieen banaketa eremuari eutsiko zaiola bermatzea eta haien populazioak eta haien gaineko ezagutza hobetzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>47. Sarba-Arizuloko <i>Senecio carpetanus</i> azpipopulazioaren prebentzio hesia eta San Romaneko ihitokiko azpipopulazioan dauden sastrakak kentzea. Neurri horien erantzunaren jarraipena egitea eta plantulak ernetzeko eta ereiteko protokolo bat garatzea.</p> <p>48. <i>Carex davallana</i>, <i>Drosera longifolia</i> eta <i>Primula farinosa</i> habitataren azalera txikiak ixtea eta, beharrezkoa izanez gero, askak instalatzea inguruetan, espezieak berreskuratzen eremuetatik kanpo. Neurri horien erantzunaren jarraipena egitea eta plantulak ernetzeko eta ereiteko protokolo bat garatzea.</p> <p>49. Zohikatzen guneetako funtsezko elementuak multzokatzeko espezieen tokian tokiko populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten sei urteko zaintza planak definitzea, ezartzea eta mantentzea.</p> <p>50. Zohikatzen flora espezieen populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.</p> <p>51. Germoplasmaren bilketarako eta mehatxatuen dauden espezieen ex-situko ugalketarako programa bat prestatzea.</p> <p>52. Hedapen potentzialeko eremuak zehatzea eta mehatxatuen dauden espeziei begira birsartzeko eta ingurunera egokitzeko protokoloak prestatzea.</p>

#### 4. FE- Ibaiak eta ibarretako akuatikoak

Helburuak eta jarduketak	
<b>Amaierako 4. helburua</b>	Ibarren inguruetako habitat akuatikoen eta haiei lotutako fauna espezieen hobekuntza eta kontserbazioa bultzatzea eta iturburu petrifikatzaileen ezaugarriei eta ohiko habitataren dinamikari eustea (erregimen hidrologikoa eta uraren ezaugarri fisiko-kimikoak).
4.1. Helburu operatiboa	Ur multzoen ezaugarri biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak hobetzea eta ibarretako birgaikuntza bultzatzea.
Ildoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Olandinako lakuko lur periferikoetako eta isurialdeetako jabeekin edota maizterrekin lurraldea zaintzeko akordioak sustatzea, lugorria edo laborantza ekologikoa bizkortzeko, ongarrien eta fitosanitarioen erabilera murriztuz.</li> <li>- Habitata lehengoratzeko jardunak egiten badira landaredia biderkatzearen bitartez, zona berdineko aleak erabiliko dira beti edo hurbileko tokietakoak bestela (baso alubialak eta galeriakoak).</li> <li>- Olandinako urmaela ureztatzeko putzu gisa erabiltzen dela saihestea edo, behinik behin, ateratzen den ura kontrolatzea, izan ere, hezetasun gehien exijitzen duten espezieak eragin daitezke. Urmaela inguratzen duen heskaia eta zuhaitzia babestea. Heskai horri eragin diezaioketen sastraken erreketak kontrolatzea. Kasu horretan, urmaeleko ezpondak soildurik geratuko liriateke eta higadura fenomenoak sortuko, eta, beraz, urmaelaren edukiera hartzen duen lekua lohiz beteko litzateke. Isurketa kimikoak edota nekazaritzakoak saihestea.</li> </ul>
Neurriak	<p>53. La Dehesako Putzuak, Fuente Honda, Lakanduz, Raso Espinas, Raso, Renabar eta Marizurietako zohikaztegiak babestea <i>Rana dalmatina</i> espeziarentzako lehentasunezko babesleku gisa. Hezegune hauetan bideratzen den edozein jardunek espeziari ekarritako eraginen txosten bat eduki beharko du, eta baita Organo Kudeatzailearen baimena ere.</p> <p>54. Eremuko hezegune iraunkorrak eta aldi baterakoak kontserbatzeko eta erabiltzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, abeltzaintzako erabilerari, azken egokitzapenari, lehengoratzeko ekintzei (lehortutako gunek berreskuratzea, drainatzeak kentzea, isurketen kontrola...) eta abarri mugak ezartzeko aukera eta komenigarritasuna aztertuz agiri honetan ezarritako lehentasunezko ekintzak jasoz.</p> <p>55. Olandinako lakuko fauna aloktonoa desagerraraztea. Kubeta txikia berreskuratzea eta bertan <i>Nymphaea alba</i> birsartzea, populazio naturalaren diasporak erabiliz.</p> <p>56. Olandinako lakuan informazio panel bat instalatzea, habitat horren garrantziaren berri emateko eta bertan dauden flora eta fauna espezieen dibertsitatea jakinarazteko.</p>

	<p>57. Otazako ameztiko hezegunean (Maeztu) abereen sarrera mugatzea, zapaltzea saihesteko hesi perimetrala jarriz eta aska bat instalatuz, beharrezkoa izanez gero.</p> <p>58. Gizakiak edota abereek kutsatzaile organikoak sortzea zaintzeko eta kontrolatzeko sistema finkatzea Berrozi eta Ayuda ibaietan</p>
<b>4.2. Helburu operatiboa</b>	<b>3170* habitatak (aldi baterako urmael mediterraneoak) okupatutako azaleraren ezagutza hobetzea eta bertako floraren problematikaren berri ematea, banaketa eremuaren mugan egoteagatik.</b>
<b>Neurriak</b>	59. 3170* habitataren banaketa eta azalera eta Izkiko Natura Eremu Babestuan duen problematika ezagutaraztera bideratutako kanpo prospekzioa eta habitat horretako floraren ezagutza berrikustea eta eguneratzea.
<b>4.3. Helburu operatiboa</b>	<b>7220* habitata (iturri petrifikatzaileak) agertzen den esparruen azalerari eta kalitateari eustea; zehatzago ur jauzia elikatzen duen errekaen uraren kalitatea ezagutzea eta kontrolatzea, bai eta haren ukipenak eta alterazio faktoreak ere.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>60. Dinamika hidrológicoaren, emarien eta uraren kalitatearen ezagutzan sakontzea, lurrazpiko fluxuetan arreta berezia jarriz, toba sorrarazten duten kaltzifikazio prozesuak mantentzea horren menpe baitago.</p> <p>61. Gaur egun toba eratzeko puntu dinamiko eta ebolutiboa zehaztea, etorkizuneko bilakaera aurreikusi ahal izateko.</p>
<b>4.4. Helburu operatiboa</b>	<b>Haltzadi eta sahasien azalera estalia ea egitura mantentzea edo areagotzea eta zohikatzeako haltzadietan arreta berezia jartzea, haien bitxikeria, flora oparotasun eta kalteberatasuna direla eta.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haltzadien eta sahasien kudeaketak aintzat hartuko du ibai ekosistemaren multzo osoa ikuspegi funtzionaltik, eta ez modu puntual batean. Bermatu egin beharko da komunitate ezberdinen artean dinamika naturala dagoela (belardiak, sahasiak, uretako komunitateak, eta abar) eta batzuk edo besteak lehenetsi beharko dira ibaiaren multzoaren egoera gorabehera (arriskuak, zatiketak, ibilguaren zabalera, propietateak, eta abar).</li> <li>- Haltzadien eta sahasien habitat honek ageri duen ahultasun handia eta lehengoratzeko erraztasuna ikusita, basoaren kudeaketak aukera emango du bere bilakaera naturala izan dadin. Birsortzea tokiko landareekin aldaxkak jartzearen bitartez egingo da.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	<p>62. Zohikatzeako haltzadiak (91D0*) agertzeko puntuak kartografikoki zehaztea, haien benetako azalera, egitura eta funtzioak ezagutzeko biderik onena den aldetik; era berean, denboran izandako bilakaera ebaluatzea.</p> <p>63. Haltzaren gainbehera izenekoaren agerpen edo presentzia zaintzeko eta prebenitzeko protokolo egokien ezarpena bultzatzea; izan ere, hori <i>Phytophthora alni</i> onddoak eragiten du eta horrek nabarmenki eragin diezaieke 91D0* eta 91E0*-ko haltzadie.</p>

<b>4.5. Helburu operatiboa</b>	<b>Gaizkien kontserbatutako ibar tarteetan landaretzaren azalera estalia areagotzea eta haien egiturazko osaera eta funtzioak hobetzea, bereziki sahashtien eta makaldi mediterraneoan (92A0 habitata).</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunitate begetal hauen bilakaera naturala aldeztuko da, birsortzeko duten gaitasun handia oinarrituz, inbaditutako ibarrak berreskuratuz, zaramak kenduz, elementu arrotzak, ereindako espezieak eta espezie exotikoak desagerraraziz, etab.</li> <li>- Azalera handietako inguruetan, landaredian egiten diren esku-hartzeak (larre bihurtzeak, baso soilketak, eta abar) kontrolatzea, ur ibilbideetan ahalik eta kalte gutxien sor dadin. Saiakera egingo da ebaketen hondakinak nahiz material finak (hondarra, legarra...) arrastaka ez ekartzeko edota uraren ibilguetan ez uzteko.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	<p>64. Berreskurapen ekintza diseinatzea herri jabari hidraulikoa inbaditu den tarteetan eta landaretza naturala kaltetu, ordeztu edo kendu den tarteetan.</p> <p>65. Zohikatzetako haltzadien hedapena ahalbidetzeko aukera baloratuko duen azterlan bat egitea 7230 motako zohikatz zabaletako ukipen guneetan.</p>
<b>4.6. Helburu operatiboa</b>	<b>Ingurune akuatikoetako flora espezieen banaketa eremua eta populazioak mantentzea eta, ahal den neurrian, hobetzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>66. Zaintzarako planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, ibaien eta ingurune akuatikoaren funtsezko elementuen multzoaren flora espezieen tokian tokiko populazio, habitat eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egin ahal izateko.</p> <p>67. Aldi baterako urmaletako flora espezieen populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.</p> <p>68. Informazio eta prospekzio plan bat prestatu eta ezarriko da, eremuaren zaintzaileei ahalbidetzeko udaberrian hezegune txikiak eta horien ezaugarri diren espezie multzoak ezagutzea, betiere <i>Littorella uniflora</i> eta <i>Isoetes durieui</i> espezieetan arreta berezia jarriz, habitataren kokapen berriei eta espezie hauei buruzko datuak jasotzeko.</p>

<b>4.7 Helburu operatiboa</b>	<b>Ibai karramarro autoktonoaren espeziearen gaur egungo banaketa ezagutzea eta haren banaketa eremua handitzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>69. Izkiko Natura Eremu Babestuan komunitate astazikolaren banaketari buruzko azterlanak egitea sei urterik behin karramarro autoktono eta aloktonoen populazioen bilakaera zehazteko Natura Eremu Babestuko ibai espazioetan kokatutako laginketa estazioen sare batean eta habitataren edota espezieen gaineko jarduketa neurriak ezartzea.</p> <p>70. Karramarro autoktonoa Izkiko Natura Eremu Babestuko erreka eta putzu sarean hedatzeko plana diseinatzea, lekualdaketak eginez. Horretarako, banaketa azterlanak hartuko dira kontuan eta habitataren potentzialtasuna, betiere karramarro aloktonoen banaketa kontuan hartuz, bai eta ibaien goiburuetan ur hartunerik eza ere. Funtsezko elementu gisa definitutako espezieen anfibioen populazioa kontserbatzeko interesguneak ere alde batera utzi beharko dira.</p>
<b>4.8. Helburu operatiboa</b>	<b>Karramarro aloktonoaren populazio berrien kokapena ekiditea eta karramarro autoktonoen guneetara zabaltzeko joerari aurre egitea.</b>
<b>Ildoak</b>	- Karramarro autoktonoaren presentzia baieztaturik dagoen guneetan zaintza zereginak handituko direla sustatzea.
<b>Neurriak</b>	<p>71. Ibai tarteetako uretan behera bi urterik behin laginketak egitea ibai karramarroaren presentzia baieztaturik dagoenean, bai eta espezie horrek kolonizatu ez dituen putzuetan ere, komunitate astazikola autoktono eta aloktonoen kolonizazio maila zehazteko edota espezie horiek sistema horien inbasioaren atzemate goiztiarra atzemateko.</p> <p>72. Izkiko Natura Eremu Babestuko putzu txikiagoetan fauna aloktonoen populazioak kontrolatzeko programa diseinatzea eta garatzea, espezie horien presentzia baieztaturik dagoenean.</p>
<b>4.9. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko eremuan kontserbatzeko interes gehien duten odonatoen populazioak zaintzea eta ezagutzea eta haien hedapena bultzatzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>73. <i>Aeshna affinis</i> eta <i>Coenagrion mercuriale</i> espezieen populazio mailak zehaztea, populazio errolda zehatz bat aurrera eramanez.</p> <p>74. Kontserbatzeko interesa duten odonatoen populazioen jarraipena, 6 urterik behin egin beharreko populazio errolden bidez.</p> <p>75. Las Rozas, Raso de los Espinos, El Espinal eta Olandinako putzuetako odonatoen populazioak bi urterik behin monitorizatzea, bai eta Galbaniturriko zohikatsetakoak ere.</p> <p>76. Kontserbazio interesa duten fauna eta floraren populazioen gainean abereek duten eragina aztertzea hesi perimetrala jarriz modu esperimentalean, Raso de los Espinos, Las Rozas eta Maeztuko larreko putzuen</p>

	<p>inguruan eta Los Ríosko trokaren goiburuko erreketan eta Galbaniturriko zohikatzean ere.</p> <p>77. Raso de los Espinos, Maeztuko larre eta Las Rozas inguruan askak eraikitzea, aurreko neurriak tokian tokiko abeltzaintzan izan ditzakeen ukipenak murriztu nahian.</p>
<b>4.10. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko KBE / HBBEn kontserbatzeko interes gehien duten anfibioen banaketa eta populazio bilakaera ezagutzea eta haien habitata kontserbatzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>78. <i>Discoglossus jeanneae</i> eta de <i>Rana dalmatina</i> espezieen populazio mailak zehatzea, errolda zehatz baten bidez.</p> <p>79. Izkiko putzu eta erreken sarean anfibioen funtsezko elementuen multzoko taxonen errolda, 6 urterik behin.</p> <p>80. Maeztu, Las Rozas, Marizurrieta eta Raso de los Espinosko putzuetako anfibioen populazioak bi urterik behin monitorizatzea, bai eta Galbaniturri, Fuente Honda eta El Mineral-eko zohikatzetan ere.</p> <p>81. <i>D. jeanneae</i> espeziea Izkiko putzu eta erreken sarean zabaltzeko programa bat diseinatzea, lekualdaketak eginez. Horretarako, espeziearen banaketa hartuko da kontuan, bai eta habitaten potentzialtasuna (ibai karramarroen eta igel arruntaren banaketaren arabera) eta bestelako ukipenik ez egotea ere.</p>
<b>4.11. Helburu operatiboa</b>	<b>Bisoi europarraren eta igarabaren espezieen banaketa eta populazio bilakaera ezagutzea Izkiko KBE / HBBEn eta haien habitata kontserbatzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>82. Sei urterik behin populazio erroldak egitea Izkin bisoi europarraren eta igarabaren banaketa eta populazio egoeraren berri izateko.</p> <p>83. Bisoi europarraren presentziaren eta gabeziaren urteko aurreikuspena bisoi amerikarraren ugaritasun erlatiboarekin alderatuz, azken hori kontrolatzeko programaren bidez (betiere bizirik harrapatzeko urteko tranpetan oinarrituz).</p> <p>84. Bisoi amerikarraren populazioak kontrolatzeko programari jarraitzea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako kudeaketa planean ezarritakoari jarraituz. Egitasmo horretan espezie exotiko inbaditzailea bizirik harrapatzeko urteko tranpak azaltzen dira.</p> <p>85. Izkin bisoi europarraren eta igarabaren habitataren potentzialtasuna aztertzea eta ikertzera bideratutako jarduketa programa prestatzea eta garatzea, hobetzeko jarduketan proposamena jasoz.</p>

## 5. FE- Harkaitzak eta antzeko inguruneak

Helburuak eta jarduketak	
<b>Amaierako 5. helburua</b>	<b>Harkaitz eta antzeko ingurunetako fauna eta floraren banaketa eremuari eta populazioei eustea, haien jarraipena ezarriz.</b>
<b>5.1. Helburu operatiboa</b>	<b>Harkaitzen eta antzeko inguruneen habitatei lotutako flora espeziatuz ezaguna den banaketa eremua mantentzea, bai eta bertako populazioak ere.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Armeria arenaria</i> subsp. <i>burgalensis</i> bizi den habitata irekita mantentzea, artzaintza bidezko kontrolaren bitartez landaredia etapa helduagoetara iristea galaraziz.</li> <li>- <i>Arenaria vitoriana</i> eta <i>Genista eliasennenii</i> espezieen populazioak zorrozki babesteko zaintza zereginak sustatzea; horrela, jardun bakar batek ere (basokoa, abeltzaintzakoa, antenak, pistak, eta abar bezalako azpiegiturak instalatzekoa) ez dio kalterik ekarriko landare hauen banaketa eremuari.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	<p>86. Sei urteko zaintza planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, baso floraren funtsezko elementu gisa definitutako espezieen populazioen eta habitaten egoeraren jarraipen sistematikoa egitea ahalbidetzeko.</p> <p>87. Harkaitzetako eta antzeko inguruneetako flora espezieen populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.</p> <p>88. <i>Potentilla fruticosa</i> espeziearen germoplasma biltzea. Material genetiko hori biltzea, erneketa probak garatzea eta hazien bideragarritasuna aztertzea, espezie hori berriro sartzeko edo sendotzeko.</p>
<b>5.2. Helburu operatiboa</b>	<b>Harkaitzetako harrapariak aztertzeraz bideratutako gaur egungo kudeaketari jarraipena ematea eta haien habien eta bizi eremuen habitatak kontserbatzea.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harkaitzetako harrapariak markatzeko eta haien jarraipena egiteko tekniken aplikazioaren egokitasuna balioztatzea, hala nola eraztunak, irrati bidezko jarraipena, satellite bidezkoa...</li> <li>- Harkaitzeko espezieen jarraipenak ugalketaren porrot iraunkorra atzematen badu elikadura falta dela eta, bizi eremuaren natura eskuragarritasuna handitzera edo elikagai osagarriak eskaintzera bideratutako jarduketaren aplikazioaren komenigarritasuna aztertzea.</li> <li>- Lurraldeen arteko koordinazioa bultzatzea harkaitzeko harraparien maneian eta kudeaketan.</li> <li>- Sai arreak Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintzari eragindako kalteak ikuskatzeko sistemari eustea eta horien konpentsazio ekonomikoa mantentzea.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	89. Harrapari harkaitzarren lurralde eta kolonia guztien populazio erroldak egitea urtero, bai ezagunenak bai kokalekuak izan daitezkeenak bai utzi dituzten lurraldeenak. Jarraipen lan horretan hontz handia eta



	<p>belatxinga mokogorria sartuko dira.</p> <p>90. Eremuan arrano beltzaren populazioaren errolda zehatza garatzea, gehienbat ugalketari buruzko datuak lortzeko.</p> <p>91. Ugalketa parametroak aztertzea. Gehien ikusten diren bikoteen ugalketa parametroak aztertzen jarraitzea urtero; horretarako, metodologia estandarrari jarraituko zaio, bi aldagaitan arretan berezia jarriz: ugalketan izandako arrakasta eta produktibitatea.</p> <p>92. Izkiko Natura Eremu Babestu osoan habiak kontrolatzeko eta zaintzeko plana ezartzea udan. Arreta berezia jarriko da helduen espolioazio aukeren eta hilezkortasun arriskuaren susmoa dakarren edozein zantzutan, bai eta habiak egiteko eremuetan eragozpenak murrizteko zereginen ere. Horretarako, honako epe kritiko hauek ezartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sai zuria: martxoaren 1etik irailaren 1era.</li> <li>- Sai arrea: urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era.</li> <li>- Arrano beltza: martxoaren 1etik uztailaren 20ra.</li> <li>- Belatz handia: Otsailaren 20tik ekainaren 2ra</li> <li>- Hontz handia: Urtarrilaren 10etik ekainaren 30era.</li> <li>- Belatxinga mokogorria: martxoaren 1etik uztailaren 15era.</li> </ul> <p>93. Korresko linea elektrikoak abifaunarentzat duen arriskua baloratzea eremuaren ekialdeko sektorean, hala badagokio, hori zuzentzeko neurriak diseinatuz.</p> <p>94. La Muela, Agin eta Arluzea inguruetara sartzeko debekua seinaleztatzea urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean.</p> <p>95. Baimendutako eskalada guneak mugatzeko seinale eta informazio panelak jartzea.</p> <p>96. Baimendutako guneetatik kanpo kokatutako eskalada ekipamenduak kentzea.</p>
<b>5.3. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko KBE / HBBEn kontserbatzeko interes gehien duten haitzuloetako kiroptero eta kiroptero antropofiloen banaketa eta populazio bilakaera ezagutzea eta haien habitata kontserbatzea.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen komunitatearen gaineko laginketa teknikak sustatzea, animalia hauek harrapatu eta maneiatu gabe; hala ere, aleak markatzeko eta jarraitzeko zenbait teknikaren aplikazioaren egokitasuna balioztatuko da, hala nola irrati bidezko jarraipena...</li> <li>- Udal arautegiak kiropteroak babesteko baldintzak jasotzeko bultzada ematea.</li> </ul>
<b>Neurriak</b>	97. Kontserbatzeko interesa duten haitzuloetako kiropteroen eta antropofiloen populazio erroldak egitea sei urterik behin.

	<p>98. Izkiko Natura Ereku Babestuan haitzuloetako kiropteroen eta antropofiloen espezie nagusien kolonia pilotuak monitorizatzea urtero.</p> <p>99. Izkiko Natura Ereku Babestuko haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen espezieen babesleku natural eta artifizialen erregistro bat sortuko da. Erregistro horretan haieran egin daitezkeen jarduketaren ebaluazio eta balorazio bat jasoko da (haitzuloetako sarreren sare horizontalak, elikadura guneen egokitzapena, etab.).</p> <p>100. Haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen aterpe nagusiak kontrolatzeko eta zaintzeko plana ezartzea, arreta berezia jarritz alterazio susmorik egonez gero, ale helduen hilezkortasuna handituz gero edo ugalketa garaian eragozpenik izanez gero.</p>
--	---

## 6. FE.- Hareatzak

Helburuak eta jarduketak	
Amaierako 6. helburua	<b>Gaur egon okupaturako eremuan <i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i>-en presentziari eustea.</b>
6.1. Helburu operatiboa	<i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i> espeziea garatzen den sasitzaren hedapenari eustea.
<b>Ildoak</b>	- Untxi eta erbi populazioak bermatzea, <i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i> espeziaren habitataren mantentze naturalaren alde egiten dutelako.
<b>Neurriak</b>	<p>101. <i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i> espeziea dagoen bi gune txikietan hesiak jartzea. Neurri horren jarraipena egitea eta hazien bilketaren, erneketaren eta plantulen ereintzaren protokolo bat garatzea.</p> <p>102. Modu naturalean, abeltzaintzaren aprobetxamenduaren bidez, ezin bazaio habitat horri eutsi, sastrakak garbituko dira eremu txikietan edo erreketak partzial kontrolatuak, populazioa biziberritzeko bide gisa.</p> <p>103. Haztegia ugaltzeko protokolo bat prestatzea germoplasma bilduz eta ale berriak lortuz, populazioa sendotu ahal izateko.</p>

**7. FE.- Konektibotasuna**

<b>Helburuak eta erregulazioak</b>	
<b>Amaierako 7. helburua</b>	<b>Izkiko KBE / HBBERen barruan eta Natura 2000 Sarearen beste gune batzuetan konektibotasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.</b>
<b>7.1. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko KBE / HBBERen konektibotasun ekologikoa hobetzea.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>104. Konektibotasun ekologikoa hobetzeko proiektu bat garatzea eremu honen mendebaldeko muga, A-132 bidearen eremuan.</p> <p>105. Drainatzeak edo bestelako azpiegiturak jarraitzea eta zuzentzea, pasabide lehorren bidez eta abar, ibaien eta hezeguneen sarean konektibotasuna aldezteko.</p> <p>106. Ekoizpen hidroelektrikorako deribazio kanala jarraitzea eta zuzentzea egitura egokien bidez, hala nola irteera arrapalen bidez, etab.</p>

**8. FE.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa**

<b>Helburuak eta jarduketak</b>	
<b>Amaierako 8. helburua</b>	<b>Izkiko KBE / HBBEReko biodibertsitatearen oinarrizko kontserbazio egoera eta galtzea edo hondatzea eragin dezaketen arrazoiak behar besteko zehaztasunez ezagutzea, epe luzerako iraunkortasuna bermatzen duten beharrezko neurriak diseinatu ahal izateko.</b>
<b>8.1. Helburu operatiboa</b>	<b>Eguneratutako kartografia bat prestatzea, kontserbaziorako habitat interesgarri guztiekin eta eremuko biologia dibertsitatearako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren kultura eta natura enklabe edo elementu guztiekin.</b>
<b>Neurriak</b>	<p>107. EUNIS habitaten kartografia aldizka-aldizka eguneratzeko protokoloa zehaztea, arreta berezia jarriz bilakaera naturalak edo gizakien esku-hartzeak eragindako aldaketetan.</p> <p>108. Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal georeferentziatua" sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaletarako, heskaietarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratze geologikoetarako etab. Inbentario horren barruan elementu bakoitzaren interesa eta kokapenerako beharrezko UTM koordinadak sartuko dira.</p>

<b>8.2. Helburu operatiboa</b>	<b>Funtsezko elementu gisa definitutako prozesu, habitat eta baso espezieen kontserbazio egoera ezagutzeta.</b>
<b>Ildoak</b>	- Eremuan aurrera eramandako jarduera zientifiko edo ikerkuntzazkoetan lortutako emaitzen zabalkundea sustatzea, jendaurrean jarriz eta, horretarako, argitalpenak, Internet, hitzaldiak eta abar baliatuz.
<b>Neurriak</b>	109. Funtsezko elementu gisa definitutako habitat eta espezie guztien kontserbazio egoera ebaluatzea, informazio fitxetan erregistratuz modu arinean erabil dadin eta, hala, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluari informazio estandarizatua transmititzeko darizkion betebeharrak bete daitezten.  110. Zerbitzuetako pertsonalari zuzendu beharreko prestakuntza ikastaroak garatzea, betiere Natura Eremu Babestuaren kontserbazio eta kudeaketako lanabesetan proposatutako jarduketak, erregulazioak eta gidalerroak jakinarazteko eta funtsezko elementuak identifikatzeko.
<b>8.3. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko KBE / HBBEko biodibertsitatea epe luzeari begira mantentzea bermatuko duten beharrezko jarduketak diseinatzea.</b>
<b>Neurriak</b>	111. Basoko suteen kontrako plan zehatza prestatuko da, formazio begetal nagusien erregarritasun maila eta ur puntuen beharra aztertzeke, betiere eremuaren bide sarearen planifikazioa jasoz. Plan horretan elementuen kartografia jasoko da, bai eta intereseko formazioena ere, hala nola zirkulazio zaileko guneak, eta abar. Planaren esparrua eremu osoa eta haren perimetro bat ere izango dira.
<b>8.4. Helburu operatiboa</b>	<b>Kalkulu bat edukitzea Izkiko KBE / HBBERen dibertsitate biologikoak duen balio ekonomikoarena, bai eta espezieek eta ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere.</b>
<b>Neurriak</b>	112. Biodibertsitatearen galera edo hondamena eragiten duten jarduerak zehazteko azterlan bat prestatzea eta ukipen hori ebaluatzea Izkiko Natura Eremu Babestuan.  113. Izkiko Natura Eremu Babestuko biodibertsitatearen hondamena eragin dezaketen jarduerak kenduz gero, murriztuko litzakeen errenta kalkulatzeko azterlan bat prestatzea.
<b>8.5. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko KBE / HBBEko basa faunaren heriotza ez naturala adierazteko mapa bat egitea, bertan puntu beltzak adierazita.</b>
<b>Neurriak</b>	114. Gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: eremuko baso faunaren espezieen artean izandako heriotzak, betiere linea elektrikoaren edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkengatik eta elektrokatututa, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoigatik. Mapa hori aldizka-aldizka eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko eta planen, programen eta proiektuen ingurumen ebaluazioetan aintzat hartzeko.

	<p>115. Izkiko Natura Eremu Babestuan baso faunaren hilezkortasun ez-naturalari buruzko urteko txostena prestatzea, prebentzio neurriak jasoz.</p> <p>116. Izkiko Natura Eremu Babestutik datozen eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea georeferentziak adierazita.</p> <p>117. Eremua erabiltzen duten abeltzain, ehiztari, mendiko elkarte eta beste kolektibo batzuei zuzendutako informazio kanpaina bat egitea puntu beltzen mapa horri buruz eta haien lankidetzaren sustatzea hori prestatzeko lanean.</p>
--	--

## 9. FE.- Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritarren kontzientzia

Helburuak eta jarduketak	
Amaierako 9. helburua	<b>Gizarte partaidetza sustatzea Izkiko KBE / HBBERi erabakiak hartzerakoan eragiten dioten prozesuetan eta herritarren haren kontserbazioan inplikatzeko.</b>
9.1. Helburu operatiboa	Aldian behin herritarrei Izkiko KBE / HBBEReko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzea, bai eta ingurumeneko laguntzei, egoera ahulak dakartzaten kausei, horren inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.
Ildoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtsezko elementuak kontserbatzera bideratutako jardueretarako laguntza zehatzen ildoak sustatzea.</li> <li>- Aktiboki sustatzea indarreko landa garapenerako planean ezarritako laguntzen ezarpena.</li> </ul>
Neurriak	<p>118. Zerbitzuetako pertsonalari zuzendu beharreko prestakuntza ikastaroak garatzea, betiere Natura Eremu Babestuaren kontserbazio eta kudeaketako lanabesetan proposatutako jarduketak, erregulazioak eta gidalerroak jakinarazteko eta funtsezko elementuak identifikatzeko.</p> <p>119. Funtsezko elementu gisa definitutako habitatetarako, florarako, faunarako eta prozesu ekologikoetarako proposatutako kontserbazio jarduketari buruzko komunikazio eta informazio programa bat sortzea, eremuaren kudeaketan edota aprobetxamenduan inplikaturako agenteei zuzenduta.</p> <p>120. Izkiko Natura Eremu Babestuan garatutako lanen berri ematea Arabako Foru Aldundiaren Natura Parkeen Zerbitzuaren webgunearen eta Eusko Jaurlaritzakoaren bidez.</p> <p>121. Funtsezko elementuak txertatzea Izkiko Natura Eremu Babestuaren ingurumen hezkuntzako programaren material didaktikoetan eta zabalkunde materialean.</p>

	<p>122. Izkiko Natura Eremu Babestuaren balioei buruzko informazio panelak instalatzea, bai eta kontserbaziorako garatutako jarduketei buruzkoa ere, eremuen barruan bisitarik gehien hartzen dituzten gunetan (aisialdi gunek eta abar).</p> <p>123. Ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazio kanpaina zehatzak garatzea, betiere zohikatz, odonato, anfibio, harkaitzetako harrapari, kiroptero eta karniboro erdiakuatikoen funtsezko elementuetako espezieak ezagutzera ematea sustatzeko.</p> <p>124. Ingurune akuatikokoan espezie aloktonoak sartzearen eta sor ditzaketen prozesu inbaditzaileen eragin negatiboari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak aurrera eramatea, bai eta biodibertsitatearen eta ekonomiaren gaineko ondorio negatiboari buruzkoak ere. Kanpaina horiek eremuaren erabiltzaileei zuzenduko zaizkie (bereziki arrantzaleen elkartei) eta kolektiborik sentsibleenei (ikasleei).</p> <p>125. Ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioko kanpainak aurrera eramatea inguruko biztanleei eta herritar orokorreari zuzenduta, betiere hildako zuhaitziak kontserbatzeko garrantziaren berri emanez intereseko fauna kontserbatze aldera.</p> <p>126. Natura 2000 eremuaren erabiltzaileei zuzendutako informazio kanpainak aurrera eramatea, agiri honen ondorioz eremuan aplikagarria den arautegi berria ezagutzera emanez.</p> <p>127. Durruma Kanpezuko urkidiak erregio maila duen garrantziari buruzko zabalkunde eta hezkuntza materialak prestatzea.</p> <p>128. LIFE+ PRO-Izki proiektuan lortutako emaitzen berri emateko informazio kanpainak garatzea.</p>
--	---

## 10 FE.- Gobernagarritasuna

Helburuak eta jarduketak	
Amaierako 10. helburua	<b>Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea, ingurumenari buruzko araudia eta araudi sektoriala egokitzea, Izkiko KBE / HBBEn ondoko eremu mugakideak babesteko elementu berriak ezartzea eta babes elementurik ez duten espezie sailkatuei halako osagaiak ematea.</b>
10.1. Helburu operatiboa	Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Izkiko KBE/HBBEn aurrera eramaten dituzten jarduketak koordinatzeko batzorde tekniko iraunkorra sortzea.
Neurriak	129. Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta eremuan eskumenak dituzten bestelako administrazioen arteko lantalde egonkor bat sortzea, bai eta inplikaturako

	<p>udalekin eta administrazio batzarrekin ere, agiri honetan proposatutako kontserbazio jarduketan aplikazioan lankidetzan jarduteko. Jarraipen talde edo organo horretan ordezkaturik egongo dira jarduera tradizionalak ordezkatzeko dituzten erakunde eta organizazioak, eta gehienez urtebetean eratu beharko da, Izkiko Natura Eremu Babestuaren agiriak onesten direnetik aurrera.</p> <p>130. Urtero eremuko udalei eta administrazio batzarrei jakinaraziko zaie zeintzuk diren lantalde horrek hartutako erabakiak.</p> <p>131. Agiri honen ondoriozko ekintzen emaitzei buruzko txostena prestatzea urtero, horien gaineko balorazioa jasoz. Txosten horrek jarduketan proposamen bat jasoko du aurreikusita ez dauden kasuetarako.</p> <p>132. Habitatzen, flora eta fauna espezieen eta eremuko prozesu ekologikoen kudeaketan eta kontserbazioan eragina izan dezaketen jarduketa erregistro bat sortzea, horiek finantzatzeko modua jasoz, habitatari buruzko zuzentarauaren 17. artikuluan aipatutako seiurteko txostenari begira.</p>
<b>10.2. Helburu operatiboa</b>	<b>Izkiko KBE/HBBEko espezieen babes maila handitzea, habitatzen eta populazioen arteko konexioa sustatzea.</b>
<b>Ildoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoak ezarritakoari jarraituz, desagertzeko arriskuan dauden eta kaltebera gisa azaltzen diren flora espezieak kudeatzeko planen onarpena sustatzea.</li> <li>- Harkaitzetako espezieei begira legezko kudeaketa tresnen ezarpena sustatzea, baldin eta EAE mailan halako tresnarik ez badute. Ugatzen, sai zurien eta sai arrearen gisako hegazti nekrofagoei begira onartutako kudeaketa plan bat dago, baina ez kontserbatzeko interesgarritzat jotzen diren gainerako hegazti harkaitzarrei begira. Horiei zuzendutako proposamen bat dago. Egokia bide da espezie horien gainean dauden ezagutzak kontuan hartuz hori berrikustea eta, hala badagokio, kudeaketa planen onarpena bultzatzea.</li> <li>- EAEko saguzaharren ekintza planaren proposamenaren eguneraketa sustatzea, taxon horiek kontserbatzeko eta kudeatzeko oinarrizko lanabes gisa onartze aldera.</li> <li>- Mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartutako kiroptero espezieak kudeatzeko planaren onarpena sustatuko da.</li> </ul>

## **3.2. ZIENTZI ETA IKERKETA JARDUERA**

### **3.2.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Ikerkuntza jarduerak sustatzea, ikerkuntzan bereziki lehenetsitako ildo hauetan kokatzen direnak:
  - Izkiko biodibertsitatearen elementuen kontserbazioaren biologia.
  - Larre jarduerarekin zerikusia duten habitat interesgarriak kudeatzeko sistemak.

## **3.3. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERA**

### **3.3.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Natura Ereku Babestuko altuerako larreetan abeltzaintza mantentzea bultzatzea.
- b) Natura baliabideen gainean inpaktuak saihesten lagunduko duten abeltzaintza azpiegitura egokiak edukitzea bermatzea.
- c) Ingurumenarekin bateragarriak diren abeltzaintzako praktikak egiteko laguntzak ematea sustatzea, batez ere mendiko larreen zaintza eta mantentzea zainduz.
- d) Izkin larre baliabideak aprobetxatzea EKPZ honetan ezarritako habitat eta espezie interesgarrien zaintze helburu eta irizpideen pean egongo da.

### **3.3.2. Jarduketak**

- a) Abeltzaintza kudeatzeko plan integral bat prestatzea eta abian jartzea, larreen funtsezko elementuaren 37. neurrian ezarritakoaren arabera.
- b) Batez besteko larre produktibitatea kalkulatzeko, landaretza moten arabera, Natura Ereku Babestuan gehieneko eta gutxieneko kopuruak ezarri, eta hori kontuan hartuz abeltzaintza zama zehaztea.
- c) Erabiltzen ez diren abeltzaintza egiturak kentzea (hesiak, mahukak, etab.).

## **3.4. BASO JARDUERA**

### **3.4.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Basoko lanak baso baliabidea zaintzera zuzenduta egongo dira, antolamenduaren helburu ezberdinak bateragarri egite aldera: lurzorua eta ura babestea, biodibertsitatea zaintzea, ohiko jarduerak ekonomikoak mantentzea, hezkuntza eta aisialdi erabilerak, eta abar.
- b) Lurzorua egitura ahula denez, saihestu egin behar da drainatze egokirik ez duten edo higadura arazoak sorrarazten dituzten basoko pistak egitea. Edonola ere, eta pistek habitat hauen gainean nahi ez diren beste eragin batzuk ekar ditzaketenez, burutu baino lehen baloratu egin behar da horien erabilera iraunkortasun ekonomikoaren, ingurumenekoaren eta gizartekoaren aldetik.



- c) Baso erabilerak bultzatzea, horietan populazioak sendotu ditzaketen elementuak mantentzea eta sortzea sustatzen bada: egur hila, behar baino helduagoak diren oinak, soilguneak, adinen dibertsifikazioa, eta abar.

### 3.4.2. Jarduketak

- a) Baso masetan kalteak saihesteko beharrezko jarduketak aurrera eramatea aldiro-aldi: basoko bideen konponketa suteen aurkako bitartekoak sartu ahal izateko, izurriteen eta gaixotasunen aurkako zaintza eta abar.
- b) Basoko suteak prebenitzeko lanak mantentzea (azken urteotan garatutako basoko zaintzak: sastraka garbiketa, baso soilketak, eta abar), batez ere Paulas Bajaseko erkameztian (Bujanda) eta Las Liendreseko birpopulatzeetan (Antoñana).
- c) Arluzeako eta Apinaizko pagadietan birsortzearen alde egiteko dauden itxiturak mantentzea.
- d) Bujandako baso landaketen lehengoratzea, baso natural autoktonoa birsortze aldera.
- e) Dauden suebakiak mantentzea, horiek itxi eta bazkaleku bihurtzeko aukera aztertuz.
- f) Basoa kudeatzeko plan integral bat prestatzea edo indarrean daudenak berrikustea, betiere mendiak antolatzeke proiektuen gidaliburuan ezarritako irizpideen arabera. Babestutako eremuak kontserbatzeko tresnak (Europarc, 2013).

## 3.5. EHIZA ETA ARRANTZA JARDUERA

### 3.5.1. Kudeaketa ildoak

- a) Izkiko Natura Eremu Babestuan, ehiza eta arrantza kudeatzerakoan, ehizatzen eta arrantzatzen diren espezieen populazioen eta ehiza eta arrantza egiten diren gizarte eta natura inguruneen artean oreka bilatuko da
- b) Ehizaren aprobetxamenduak jarraitu egingo du Natura Eremu Babestuko Ehiza Baliabideak Antolatzeke etorkizuneko Planak finkatzen duena.
- c) Pausatutakoari tiro egiteko Natura Eremu Babestuaren barruan dauden usotarako txabolen izaera tradizionala aintzat hartuta, lehentasuna emango zaio erabilerari honi hegan doazenei tiro egiteko postu berriak jartzearen aurretik.
- d) Ahal den neurrian, ehiza aisialdi erabilerekin batera egitea galaraziko da. Ehiza eremuak jenderik gutxien ibiltzen den lekuetan eta aisialdi instalaziorik edota erabilerarik ez dagoen lekuetan egongo dira. Era berean, ahalegina egingo da jende asko etorri ohi den ekitaldien aldi berean ez dadin egin (ibilaldiak, ospakizunak eta abar).
- e) Bertako karramarroaren kasuan, babeserako berriazko neurriak hartuko dira. Neurrien artean, arrantzatzeke debekuari eutsiko zaio, parkeko funtsezko espezie honi begira ezarritakoaren arabera (Izki KBE eta HBBE izendatzeko 33/2016 Dekretuaren II. eranskinean biodibertsitatearen kontserbazioari buruz jasotako kapitulua). Edonola ere, jardun horiek Lurralde Historiko mailan Arabako Foru Aldundiak garatzen dituzten lanen esparruan egingo dira.

### 3.5.2. Jarduketak

- a) Ehiza antolatzeke plan bat prestatzea, Natura Ereku Babestua planifikatzeko eta kudeatzeko irizpideekin bat etorriz.
- b) Arrantza Kontinentalaren Foru Agindua erantsiko da, Parke Naturalaren mugen barruan arrantzan aritzea debekatuta egoteari dagokiona hain zuzen.
- c) Urtero jarraipena egitea ehizatzeke interesa duten espezieen egoerari buruz. Jarraipen plan hauek, gutxienez, populazioen gaineko jarraipena eta zaintza eta habitaten egoera hartuko dute. Halaber, ehizaldien emaitzaren gaineko kontrola egingo da urtero. Helburua Antolamendu Planaren jarraibideetan sartuko diren Harrapaketen Urteko Plana finkatzea da.
- d) Usotarako txabolen hondakinak ezabatzea, egun erabiltzen ez badira.

## 3.6. ONDARE ARKEOLOGIKOA BABESTEA

### 3.6.1. Kudeaketa ildoak

- a) Natura Ereku Babestuaren kultura ondarearen azterketarekin, balioa ematearekin, interpretazioarekin eta barreiapenarekin zerikusia duten jardunak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Kulturaren Euskal Planaren esparruan garatuko dira, hain zuzen ere Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak gai honetan arautzen duen horri jarraikiz.
- b) Kultura ondareari buruzko informazioa eskaintzeko saiakera egingo da, batez helburu didaktikoekin eta turismoa bultzatzeko.
- c) Natura Ereku Babestuaren natura baliabideei buruzko ikerkuntza eta azterketa sustatuko dira.

### 3.6.2. Jarduketak

- a) Natura Ereku Babestuko kultura ondasunen inbentarioa lantzea, eta hari Parkeko turismo baliabide gisa balioa emateko aukera baloratzea.
- b) Kultura intereseko hurrengo egituren adibideak lehengoratu eta gaitzea, bisitatuak izan daitezten: ikaztegiak, karetegiak eta teilategiak. Berreraikuntza horiek jatorrizko elementuaren egitura eta tamaina mantenduz egingo dira.

## 3.7. PAISAIA BABESTEA

### 3.7.1. Kudeaketa ildoak

- a) Izkiko paisaia naturala eta kulturala babesteko saiakera egingo da. Bertan, nekazaritza eta abeltzaintzako praktikak egiten aritu dira, balio naturalak babestu eta zaintzeko helburuei jarraikiz neurri handi batean
- b) Landare estalkia mantendu egingo da, higaduraren aurka borrokatzeke modu onena dela ikusi delako.

### 3.7.2. Jarduketak

- a) Izkiko Natura Eremu Babestuaren paisaiaren azterlana prestatzea, inpaktuen identifikazioa jasoz eta horiek ekiditeko jarduketan proposamen bat eginez.
- b) Obra hondakinen eta zaborren hondakindegia ixtea. Zehatz esanda, hurrengo guztiak lehengoratu dira:
  - Asfaltoen harrobiren aurrealdea Ataurin.
  - Santikurutze Kanpezu, Renabar bidezidorraren ondoan.
  - Korres, El Agin bidezidorraren ingurunean.
  - Apinaiz, Arrieros bidezidorraren eta Markizera doan pistaren ingurunean.
- c) Atauriko asfaltoen meatze ustiategiaren gainean jarraipena egitea, ustiategiak kanpoaldean kalterik eragitea saihesteko.
- d) Baso kudeaketarako, nekazaritza eta abeltzaintzarako edo erabilera publikorako behar diren pistak egiteak ekarritako eragin bisualak lehengoratzeko.

## 3.8. ERABILERA PUBLIKOA

### 3.8.1. Kudeaketa ildoak

- a) Izkiko erabilera publikoaren kudeaketa natura ondorea kontserbatzeko konpromisoen arabera diseinatu da, gizartearen itxaropenak eta EUROPARCek (Europako Natura eta Nazio Parkeen Fundazioa), EUSKALITek (Bikaintasunerako Euskal Fundazioa) edo AENOREk (Espainiako Normalizazio eta Egiaztapen Elkarteak) eta antzeko erakundeek proposatutako estandarrak aintzat hartuz.
- b) Beti izango du lehentasuna ingurune naturaleko elementu berezi eta ahulenen zaintzeak erabilera publikoko eskaeraren aurretik. Gauzak horrela, NBEko Organo Kudeatzaileak beharrezkotzat jotako presazko neurri eta muga guztiak jarri ahalko ditu, babes helburu horiek betetzeko.
- c) Erabilera publikoari dagokionez, Izkiko NEB kudeatzeko ildoak Izkiko Erabilera Publikoko Planean (EPP) zehaztuko dira; planaren ereduak laguntza emango du Izkiko baliabideak modu aktiboan kontserbatzeko, erabilera publikoaren murrizteko antolamendu bakar eta pasiboa saihestuz.
- d) Erabilera Publikoko Planak sektoretan banatuko du Natura Eremu Babestua erabilera publikoak eragin dezakeen kalteberatasunaren arabera, betiere II. eranskinean jasotako informazio ekologikoa aintzat hartuz. Eremu hauek bereiziko dira:
  - Erabilera publiko mugatuko eremuak.
  - Erabilera publikorako aldi batez mugatuko eremuak.
  - Erabilera publiko zabaleko eremuak.
  - Erabilera publiko apaleko eremuak.
  - Erabilera publiko trinkoko eremuak.
- e) Izkiko NEBren erabilera publiko plana onesten ez den bitartean, honako kudeaketa ildo hauek hartuko dira kontuan:
  - Erabilera publikoko jarduerak eta ekipamenduak NEBren guneen edukiera eta kalteberatasunaren arabera egokituko dira, jardueren intentsitatea kontuan hartuz.

- Aisialdi erabilera trinkoak NEBren inguru periferikora bideratuko dira; horretarako, eremuko udalekin eta administrazio batzarrekin koordinatuz, disuasio eremuen sare bat prestatuko da, ondoko inguruetan aisialdi zerbitzuak eskaini ahal izateko.
  - Eraginpeko eremuko udalekin eta administrazio batzarrekin koordinatuz, autobarabanetarako zerbitzuguneak ezartzea sustatuko da Natura Eremu Babestuaren inguruan.
  - Aisialdiko erabileren artean gatazkarik egonez gero, ingurunearentzat inpaktu gutxien duten erabilera publikoko jarduera horiek garatzearen alde egingo da eta, baldintza berdinetan egonez gero, izaera orokorragoa edukitzeagatik erabiltzaile kopuru handiagoari eragiten dieten horien alde egingo da.
  - Ingurunean inpakturik ez duten kirol jarduerak sustatuko dira.
  - Kanpo gidarien talde bat sortzeko eta istripuen erreskate jarduerak egiteko bultzada emango da, azken jarduera horretako antzeko taldeekin koordinatuz eta eragin sozioekonomikoko eremuko biztanleen partaidetza lehenetsiz.
  - Turismo iraunkorreko politika berriak abian jartzea sustatuko da, naturaren turismoaren sustapen eta garapena bateragarria izan dadin natura eremua babesteko helburuekin.
  - Kirol federazio eta elkarteekin (mendikoak, eskalada, espeleologia, BTT, hipika, etab.) eta turismo aktiboko enpresekin koordinatu eta lankidetzan jardungo da, NEBn garatzen diren kirol eta aisialdi jardueren antolamenduan.
  - NEBren erabilera publikoaren eta etorreraren jarraipen sistema bat ezarriko da, NEBren erabilera publikoaren magnitudea nahiz lurralde eta denbora banaketa ezagutzeko asmoz, hori oinarria izango baita jarduera horien etengabeko egokitzapena bideratzeko.
- f) Erabilera publikoko plana kudeaketa ildo zehatzak ezarriko ditu aisialdi guneei, erabilera publikoko kirol jarduerari, erabilera publikoko bestelako jarduerari, baso produktuen bilketari eta abarri dagokienez.

#### 3.8.1.1. Atsedenlekuak

- Erabilera publiko trinkoko lekutzat hartuko dira.
- NEBren barruko piknik erako atsedeen jarduerak kontrolatzea. Horretarako, ekipamendu eta zerbitzu egokiz hornitutako lekuak atonduko dira, kalitatezko atsedena eskainiko dutenak, baina eremuaren berezko izaerari atxikiz
- NEBren periferian atsedeen erabilerako alternatibak garatzea lehenetsiko da, eragin sozioekonomikoaren eremuaren barruan.
- Ibilgailuak pistetan eta horretarako prestatutako gunetan aparkatzeko eta haietarako sartzeko modua arautuko da.

#### 3.8.1.2. Erabilera publikoko kirol jarduerak

- NEBren bidezidorren sare orokorra kontserbatzeko eta seinaleztatzeko egoera egokiari eutsiko zaio; sare hori NEBko hirigune nagusiekin konektatuko da, museoekin, kultura ondareko elementuekin, nekazalturismoekin eta hurbil dagoen Entziako Natura Eremu Babestuekin.
- Bidezidorretan jendearen ugaritasuna murriztea ahalbidetzen duten ibilbideak bultzatu eta sustatuko dira; izan ere, horien gehiegizko erabilerak eremuaren kontserbazio helburuak jar ditzake kolokan, bereziki zaugarritasun bereziko guneak gurutzatzen edo zeharkatzen dituzten bidezidorretan (erreserba guneak, kontserbazio aktiboko guneak).
- Bidezidorren sare orokorra erabilera publiko apaleko eremutzat hartuko da.
- NEBn eskalada arautuko da, dagokion kirol federazioarekin koordinatuz. Jarduera hori baimenduko da, baldin eta harkaitzen funtsezko elementuari

edo harkaitzetako flora eta fauna mehatxatuari eragiten ez badio; arreta berezia jarriko da harkaitzetako hegaztiak behar duten premietan. NEBren Organo Kudeatzaileak eskaladaren jarduna mugatzeko ezarpenak jarri ahalko ditu beharrezkotzat jotzen duenean; muga horiek denbora edo toki aldetikoak izan daitezke. Hori hala izango da, baldin eta fauna eta flora espezieak kontserbatzeko helburuek hala eskatzen badute.

- NEBren aberastasun espeleologikoa babestuko da haitzuloetara sartzeko eta horiek esploratzeko kudeaketa plan zehatza ezarriz; egitasmo hori bateragarria izango da haitzulo karstikoak eta haitzuloetako flora eta fauna kontserbatzeko zereginarekin. Arreta berezia jarriko da haitzuloetako kiropteroen komunitateetan. Bisitariak barrunbe bisitatuenera, seguruenera eta sarbide errazenera bideratzea, betiere, barrunbe horiek hondatu ez daitezen begiratzuz.

### 3.8.1.3. Erabilera publikoko jarduera antolatutak

- Kontrolpeko kanpaketa librerako emandako baimenak mugatu egingo dira, eta antolatutako kanpamenduak harrerarako edukiera nahikoa duten eremuetara eta aterpetxeen edota aisialdi eremuen kanpoaldeetara mugatuko dira, zaintze balioekin bat etorriz.
- Erabiltzaile mota ezberdinei zerbitzua ematea, bisitariari NEBn edo haren ingurumarietan lo egiteko aukera emanez ostatu modalitate ezberdinak garatuz. Landa garapenerako planetan definitutako irizpideei laguntzea, tokian tokiko ekonomia ostatuen sorkuntzan integratuz (nekazalturismoak, hotelak, landetxeak eta kanpinak, etab.).
- Ingurumen hezkuntzako programak herritarrei eta NEBn garatzen diren erabileretan eta jardueretan inplikaturako sektoreetako teknikariei ere zuzenduko zaizkie, bereziki NEBren eraginpeko eremuko biztanleei eta NEBn garatzen diren jardueretan inplikaturako pertsoneri edo enpresei (adibidez turismo aktiboa).
- NEBko balio ekologiko edo tradizionalen nahiz paisai edo kultura intereseko balioen informazio, interpretazio eta zabalkunde ekipamenduak mantendu eta eguneratuko dira, erabiltzaileek eremuarekiko duten sentsibilizazioa areagotzarren eta adierazpena arrazoitu zuten balioak kontserbatzeko premia agerian jartzarren. Bereziki, ikastetxeei zuzendutako jarduera didaktiko eta hezitzaileen zerbitzuari eutsiko zaio, begiraleek eta hezitzaileek emandakoa eta gehienbat NEBko parketxeetan kudeatutakoa. Zerbitzu hori NEBn edo haren eragin sozioekonomikoko gunean dauden bestelako ekipamenduetara ere zabaldu ahalko da.
- Izkiko NEB topaketa eta bilera gune gisa sendotzea sustatuko da, hari lotutako gaiak garatzeko: oro har Natura Eremu Babestuak, Natura 2000 sarea, ehizaren kudeaketa, etab.
- Bereziki sustatuko dira Mendiguneko bi isurialdeetako biztanleria hurbiltzeko balio duten bisitak, jardunaldiak eta jarduerak.
- Natura Eremu Babestuaren irudia sartzeari garrantzia; horretarako, parkean interesa duten irabazteko xederik gabeko erakunde ezberdinekin –Izkiko Lagunak Elkarteak eratutako dutenak- harremanak indartu behar dira.

### 3.8.1.4. Perretxikoak eta bestelako baso produktuak biltzea

- Zenbait eremutan perretxikoen bilketa eta bateragarritasuna antolatzea jarduera zinegetikoarekin, betiere ikusgaitasun txikiko guneetan eta modalitate batzuetan bat egiten dutenean sortzen den arriskua saihestuz (pekada eta basurdea, batik bat).

### 3.8.2. Jarduketak

- a) Izkiko Natura Eremu Babestuaren Erabilera Publikoko Plana landuko da. Bertan, eremua zaintzeko eta kudeatzeko tresnetan azaltzen diren irizpideak, arauketak eta jardunak jasoko dira, eta jarduerak, instalazioak eta jendearentzako zerbitzuak antolatuko dira. Betiere, kontuan izan behar da lanabes horieta ezarritako espazioaren zonifikazioa, harrera gaitasuna, eta ingurumen zaintzako eta sentibilizazioko helburuak. Plan horrek jarduera eta jarduketa programak ezarriko ditu, bai eta burutzapen baldintzak, egutegiak, ildoak eta aplikagarria den arategi berezia ere.
- b) Izkiko Natura Eremu Babestuaren Erabilera Publikoaren Plana onartzea eta argitaratzea, betiere eremua Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko ezarritako irizpideen eta informazio ekologikoaren arabera.
- c) Erabilera publikoko planaren jarduketa programak abian jartzea.
- d) Aparkalekurako sarbideak eta aparkatzeko zonak egokitu egingo dira, jende etorrera handiena hartzeko. Arreta berezia emango zaie Natura Eremu Babestuaren atetzat jotako zonei.
- e) Aisialdiko eremuen erabilerearen intentsitatearen jarraipena egingo da, eta aparkatzeko zonak eta zerbitzuak erabilerearen eskaerari egokitu zaizkio, jarraipen horretan ikusitakoaren arabera.
- f) Natura Eremu Babestuko Bidezidorren Sarea homologatzea, mendizaletasuneko FR edo PR ibilbideak bezala. Hori Mendi Federazioaren lurralde ordezkartzaren bitartez egitekoa litzateke.
- g) Behe aldeetan zirkuitu txikiak eta ibilbide didaktikoak diseinatu eta hornitzea, Natura Eremu Babestuaren barrualdean sartzeko alternatiba gisa.
- h) Ezinduentzat eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilbideak sortzea.
- i) Behaketa panoramikoko gune berriak hornitzea, begiratoki gisara Jarraian datozen lekuak proposatzen dira:
  - San Kristobal mendia.
  - San Justi mendia.
  - La Muelako muinoa.
  - La Tejerako gainaldea.
- j) Txakurrak lotu gabe edukitzea debekatuta dagoela dioten seinaleak jarriko dira Bidezidorren Sareko bideek larre irekietara eramaten duten puntuetan, horietan abereak solte ibil daitezkeelako. Halaber, gai honi buruzko informazio kanpainak egingo dira.
- k) Ehiza baimendurik dagoen denboraldietan, eta paseatzen ari direnei eragozpenak sortzea etor daitekeen zonetan, egiten ari den ehiza jarduerari, aholkuei, bestelako ibilbideei, eta abarri buruzko seinalez tapena instalatuko da.
- l) Natura Eremu Babestuari buruzko informazio garrantzitsua eguneratuko da, jendeak Internet bidez ikusi ahal izateko (erabilera publikoa, natura eta kultura balioak, harrera zentroa eta abar).

- m) Aldian behingo kontaktuak eta elkarlana egingo dira Natura Eremu Babestukoak ez diren zenbait kolektiborekin (eskalada eta mendi federazioak, espeleologi taldeak, kirol taldeak, elkarte naturalistak, eta abar), parkean egiten diren jarduerekin zerikusia badute. Helburua informazioaren eta zabalkundearen edukiak beren eskaerei egokitzea da (gai espezifikoak, araudia eta abar).
- n) Natura Eremu Babestuaren Ingurumen Interpretazio eta Hezkuntzako Programa idaztea eta gauzatzea, talde eta kolektibo mota ezberdinentzat interpretazio eta pedagogi material bereziak eta jarduerak diseinatzeko beharrezko diren gogoetak ezarriz.
- o) Zonan dauden edo aurreikusten diren beste ekimen didaktiko eta kultural batzuen kudeatzaileekin koordinatzeko mekanismoak sortzea.
- p) Natura Eremu Babestuen UNE 187002 arauan (AENOR) oinarritutako Parkea Kudeatzeko Sistemaren ezarpen eta egiaztapen zereginei heltzea; haren marka ezaguna kalitatezko Q da.
- q) Izkiko Natura Eremu Babestua egiaztatzeko lanei heltzea, Turismo Iraunkorreko Europar Gutunaren bidez.
- r) Perretxikoen eta baso produktuen bilketari buruzko arauzko murrizketa berriei buruzko informazio kanpaina. Halaber, jarduera honek ehizarekin bat egiten duenez urtaroaren aldetik, gomendatu egingo da informazio kanpaina horretan txaleko islatzaileak erabiltzea perretxiko biltzaileek.

### **3.9. TOKI GARAPENA**

#### **3.9.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Tokiko garapeneko eremuan ezartzen diren jarduketek eta erregulazioek aintzat hartu beharko dituzte Izkiko garapen sozioekonomikoaren etorkizuneko programaren edukiak.

#### **3.9.2. Jarduketak**

- a) Izkiko Natura Eremu Babestuaren garapen soziokononikoko programa prestatzea.
- b) Erabilera publikoa eta natura baliabideen kontserbazioa direla eta, konpentsazio sistema bat ezartzea erabileren mugengatik eta etekinen galeragatik kalte-ordainen, laguntzen eta bestelako neurrien bidez.
- c) Organo Kudeatzaileak parte hartuko du Arabako Mendialdearen Landa Garpenerako Programen berrikuspen eta onarpenean, eta honakoetara zuzendutako neurriak sartuko ditu:
  - Parkearen helburuei eragin negatiboak ekar diezazkieketen proiektu edo jarduerak planifikatzen direla aurreikustea, bai Parkearen barrualderako, bai bere Kanpoaldeko Babes Eremurako.
  - Natura Eremu Babestuaren funtsezko elementuak kontserbatzea.
  - Erabilera publikoko ekipamenduak.
  - Natura Eremu Babestuaren baliabide turistikoaren erabilera iraunkorra sustatzea.

### 3.10. PLANIFIKAZIO HIDROLOGIKOA

#### 3.10.1. Kudeaketa ildoak

- a) Eremuaren Organo Kudeatzailea kontsultatua izango da Izkiko Natura Eremu Babestuan kokatzen diren uren hornikuntza eta saneamendu sistemak zabaltzeko edo hobetzeko tramitazioan, baldin eta eremuaren kontserbazioaren xede diren espeziei edo habitatei eragitea aurreikusten bada, baina betiere uren arloko legerian ezarritakoari kalterik egin gabe. .
- b) Organo Kudeatzaileak gaian eskuduna den arroko erakundeari eskatzea ibai konektibotasuna hobetzeko neurriak hartzeko eta gutxieneko emari ekologikoari eusteko bi ibaietako (Izki eta Berron) Antoñanako zentral hidroeletrikoari lotutako ur bilketak egiteko guneetan.

#### 3.10.2. Jarduketak

- a) Izkiko zaintzak lankidetzan jardutea eskuduna den administrazio hidraulikoarekin, betiere uretan zuzeneko isurketak (hobi septikoak, aisialdi eremuak, parasitoak kentzeko ontziak, etab.) edo difusoak (alboko finkak ongarritzea) sor daitezkeen arroen zaintza gunetik kanpoko jarduerak ikuskatzeko zereginei dagokienez.
- b) Ur ibilbideen eta gainerako hezeguneen ertz eta bazterren Jabari Publiko Hidraulikoaren mugaketa.

### 3.11. Eraikuntzak

#### 3.11.1. Kudeaketa ildoak

- a) Natura Eremu Babestuaren zona ez hain sentikorretara orientatuko da beharrezko ekipamendua, erabilera publikoaren kudeaketa eta funtzioa egite aldera. Arreta berezia jarriko da jendea hartzeko behar besteko gaitasuna duten puntu zehatzetan
- b) Saiakera egingo da eraikuntza jardun guztiek hurrengo estilo baldintzak errespetatu dituzaten.
  - Eraikinari nortasuna ematen dioten arkitektura elementu guztiak gordeko dira, ahal den neurrian, berrikuntza lanak gauzatzeko; eta lehen ikusten ez zen elementu ezkuturik aurkituz gero, ahaleginak egingo dira lehengo eginkizuna berreskura dezan, beharrezko elementuekin bateratsu.
  - Egiten diren eraikin berriak zonan nagusi den estilo tradizionalari egokituko zaizkio. Natura inguruarekin bat etorriko dira, hala fatxadetan nola estalkietan edo kanpotik ikusten diren beste parte batzuetan, eraketa orokorrari (desnibelak, moduluak, baoen proportzioak etab.), gaietara eta koloreei dagokienez.
- c) Natura Eremu Babestuko Organo Kudeatzaileak sustatu egingo du gaur egun bertan dauden eraikinen barne eta kanpo ezaugarriak egokitzen direla, egungo erabileran eta inguruarekin egoki ez datozenetan gabeziak igartzeko badira



### **3.11.2. Jarduketak**

- a) Natura Ereku Babestuaren ekipamendu beharretarako edo, kultura edo ondare balioagatik beragatik nahiz zerbitzuak edo ekipamenduak hartzeko eskaintzen dituzten aukerengatik, haren erabilera publikorako erabil daitezkeen eraikinak mantentzea
- b) Ondare baliorik ez dutela, erabilera galdu dutela eta paisaiari inpaktua ekartzen diotela uste den eraikinak eraistea.

### **3.12. Azpiegiturak**

#### **3.12.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Pista eta bideen inguruko landaredia zaintzeko helburuarekin, zorua eta hustubideak goera onean daudela zainduko da.

#### **3.12.2. Jarduketak**

- a) Natura Ereku Babestuaren gaur egungo bide sarea (arekak eta ubideak barne) zaintzea eta hobetzea, ahalik eta denboraldirik luzeenean eta ahalik eta baldintzarik onenetan ibilgailu baimenduak eta zaintzaz arduratzen direnak igaro ahal izateko

### **3.13. Erauzketa jarduerak**

#### **3.13.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Meategi eskubidea errespetatuz, Izkin datozen urteetan garatuko diren jardunak zuzenduta egongo dira ingurune naturalari eta paisaiari ekar dakizkiekeen eraginak murriztera.

#### **3.13.2. Jarduketak**

- a) Atauriko asfaltoen meategien eremuan, hurrengo jardunak egingo dira:
  - Meategia Lehengoratzeko Plana aplikatzen dela bultzatzea
  - Meategi eremua seinaleztatzea, batez ere makineria astuna igaroko den zonetan, baldintza txarretan dauden eraikinetan eta galeria zaharretarako sarbideetan. Horrela, pertsonentzako ez dira arriskutsuak izango.
  - Meategiaren goialdean dauden hondakin eta zabor hondarrak kentzeko eskaera egitea, eta lekua txukun mantenduko dela bermatuko duen jarraipena egitea.

## **4.- KUDEAKETA ESTRATEGIA**

### **4.1. PLANTEAMENDU OROKORRA**

#### **4.1.1. Kudeaketa ildoak**

- a) Natura Eremu Babestuko basozain kopurua egokitzea indarreko araudia aplikatuzetik etorritako kontrol beharrei. Kontrol eskari gehieneko uneetan (ehiza, oporraldiak...), basozainei laguntzeko zerbitzu berezia kontratatzeko aukera aztertuko da.
- b) Natura Eremu Babestuko basozainek lagundu egingo diete gainerako basozaingoei, babestutako eremuan eta beren eragin eremuaren barruan

#### **4.1.2. Jarduketak**

- a) Basozainek jagoletza lanak egingo dituzte, Natura Eremu Babestuko bidezidorretatik igarotzeko aukerak nahiz horietan jarritako erabilera publikoko ekipamendua egoera onean mantentzen direla bermatzeko.
- b) Kontrol mekanismoak mantentzea, baimenik gabeko ibilgailuek pistak nahi bezala erabiltzen dituztela saihesteko.

## **4.2. BABESEKO, BALIABIDEEN KONTSERBAZIOKO ETA GARAPENeko PROGRAMA ZEHATZAK**

### **4.2.1. Natura Eremu Babestuaren Jarraipen Plana**

Jarraipena edo monitorizatzea ikerkuntza programak ezartzea da, sistema naturalen egoera ebaluatzeko, denboran gertatzen diren aldaketak eta joerak detektatzeko asmoarekin. Etenkako zaintza bat da, estandar jakin baten betetze maila edo espero den arau baten desbideratze maila egiaztatzeko.

Balorazioa egiteko informazioa ingurunekeko elementu bat edo gehiago, helburu jakin batekin, behin edo gehiagotan behatzeko prozesutik dator. Behaketa denboran eta espazioan aldeztatik ezarritako programa baten arabera egiten da, eta datu bilketako metodologia konparagarri batekin.

Izkiko Natura Eremu Babestuaren Jarraipen Planak NBAPEk beretzat 10. idatz zatian jartzen dituen baldintzak beteko ditu, eta Faunari, Landarediari, Paisaiari, Urei, Baso erabilerari, Abeltzaintza erabilerari eta Erabilera publikoari buruzko irizpideak aintzat hartuko ditu. Natura Eremu Babesturako ezarritako kontserbazio helburuen betetze maila egiteko beharrezko lanen planifikazioa sartuko da.

Eduki horiei erantsiko zaie zehaztutako jarduketa guztien bost urterik behingo jarraipen bat, Natura Eremu Babestuaren baliabideen, erabileren eta jarduketaren segimenduan oinarritutakoa.

Hori guztia Izkiko Natura Eremu Babestuaren jarraipen planean sartuko da.

#### **Jarraipen planaren helburuak:**

1. Eremu babestuen planifikazioaren eta kudeaketaren helburuak eta edukiak zehaztea, jarraipen programa egoki baten bidez erraz ebalua daitezen.

2. Beste lurralde batzuetan ingurumen jarraipeneko programei buruz dagoen esperientzia aprobetxatzea, programa horien ezarpena sustatzen, metodologia eta plan komunak diseinuan eta eskualdeko jarraipen sare baten sorreran aurrera egiteko.

3. Plangintzaren eta kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko jarraipen programa egokiak ezarri ahal izateko dauden giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak baliagarri egotea sustatzea.

4. Espazio babestuen kudeaketa eta jarraipeneko ohiko jardueretan metodologia eta protokolo zorrotz, estandarizatu eta konparagarriak erabiltzea sustatzea.

5. Izkiko Natura Eremu Babestuari epe luzeko helburuekin eta baliabideekin jarraipena egin ahal izateko behar duen tresna ematea. Egoera adierazleak deritzenak erabiliko dira horretarako, denboran izan litezkeen aldaketak eta joerak detektatzeko helburuarekin.

### Jarraipen Planaren edukiak

- Helburuak.
- Izkiko Natura Eremu Babestura hurbiltzea.
- Adierazle sistema diseinatzea: helburuak eta adierazle motak (unibertsalak eta espezifikak), kudeaketaren helburuei lotutako erreferentziako esparru kontzeptuala, eskala espaziala (adierazleak aplikatzeko mailak) eta adierazle sistemaren azken egitura. Adierazleek men egingo diete Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legeak eta 42/2007 Legeak natura babestu eremuetarako ezarritako helburuei: plangintza eta kudeaketa, zaintzea, grapena eta ingurumenaren gaineko sentsibilizazioa.
- Jarraipen areak eta aldagaiak aukeratzea, parkearen aitorpen eta kudeaketa helburuen arabera. Natura Eremu Babestuaren adierazleen sistema.
- Adierazleen fitxak. Proposatutako adierazle bakoitzarentzat honakoa zehaztuko da:
  - Adierazlearen izena.
  - Adierazle mota.
  - Azalpena.
  - Kudeaketarentzat duen esanahia.
  - Neurketaren periodikotasuna.
  - Neurketaren protokoloa.
  - Kalkulurako formula, neurketa unitateak, atalasea edota lagin kopurua.
  - Nahi den joera.
  - Datuen iturriak.
    - Emaitzen azterketa eta aplikazioa.
    - Burutzeko estrategia.
  - Lanen programazioa.
  - Burutzapen aurrekontuaren proposamena.
    - Erakunde lankideak eta lankidetzak formulak.
    - Jarraipen Planaren indarraldia, ebaluazioa eta berrikuspena.
    - Eranskinak eta kartografia.

#### 4.2.2. Erabilera Publikoaren Plana

Erabilera Publikoko Plana (EPP) erabilera publikoko jardueren, instalazioen, erregulazioen eta zerbitzuen proiektu antolatua da. Haren barruan burutzapen egutegia dago eta planean zehaztutako eremu babesturako erabilera publikoaren ereduaren burutzapen eta jardunbide baldintza zehatzak jasotzen ditu.

EPPk burutzapenean inplikaturako agenteak zehaztuko ditu, bai eta beharrezko aurrekontuak, ildoak eta aplikatu beharreko arautegi berezia ere; gainera, jarraipen eta ebaluazio sistema bat aurreikusiko du, jarduketan gaineko adierazle zehatzak adieraziz. EPPk programetan eta esku-hartze arloetan banatu ahalko da, betiere eremu babestuaren ezaugarriei egokitzuz.

EPPN honako atal hauek sartu behar dira, gutxienez:

1. Aurrekariak eta justifikazioa.
2. Plangintzaren helburuak.
  - a. Helburu orokorrak.
  - b. Helburu zehatzak.
3. Hasierako egoeraren diagnostikoa.
  - a. Lege esparrua.
  - b. Eragindako esparrua.
  - c. Erabilera publikoko baliabide baliagarriak.
  - d. Erabilera publikoko eskaintza.
  - e. Eskareren azterketa.
    - i. Kuantifikazioa.
    - ii. Bisitariak ezaugarritzea.
  - f. Zerikusia duten eragileen eta finantzazio mekanismoen sarearen analisia.
  - g. Harrera gaitasunaren balorazioa eta erabilera publikorako eszenatokiaren definizioa.
  - h. Inpaktuen detekzioa eta aurreikuspena eta elkartutako neurri zuzentzaileak. Gaitasunaren zonifikazioa, jardueren eta ingurunearen hauskortasunaren arabera.
  - i. Plangintza ereduaren baldintzen eta funtsezko ezaugarrien analisia (zerikusia duten eragileak, azpiegiturak kudeatzeko ereduak, zerbitzuak kobratzea, espazioaren kanpoaldeko zerbitzuekiko harremanak).
  - j. Erabilera publikoko programen ildoak.
4. Erabilera publikoaren planifikazioa diseinatzea (sektorializazioa, arautegia, ekipamenduetarako eta zerbitzuetarako ildoak eta programak). Erabilera Publikoko Plana osatzen eta garatzen duten programak babestutako espazioa babestearen eta kudeatzearen zerbitzutan dauden tresnak izango dira, eta haietan helburu horiekin zerikusia duten edukiak lehenetsiko dira. Mezuak errazak, ulergarriak eta erakargarriak izango dira, eta zerbitzuak, ahal den neurrian, pertsonalatuak. Gutxienez programa hauek sartuko dira:
  - a. Harrera programa.
    - i. Jarduerak arautzeko azpiprograma.
    - ii. Eraginak zuzentzeko eta prebenitzeko azpiprograma.
  - b. Komunikazio eta informazio programa. Informazioa: argitalpenak, irudiaren erabilera, sustapena eta abar. Eskainitako informazioan, gutxienez, erabilera publikoaren, kokapenaren, mugen, zonifikazioaren, ekipamenduen kokapenaren, arreta ordutegien eta espazioaren natura eta kultura balioen oinarritzko araudia sartuko da.

- c. Ingurumena zaintzeko programa. Iraupen luzeko programazioa, lehenetsitako kolektiboari zuzendua (adibidez, bertako biztanleak eta ikasleak).
  - d. Segurtasun programa. Bisitarien segurtasuna bermatzen duten prozedurak eta jarduketa protokoloak ezarriko dira.
  - e. Boluntariora programa.
  - f. Programazioa. Finantzazioaren egutegia eta aurreikuspena.
5. Erabilera publikoaren administrazioa.
- a. Erabilera publikoko zerbitzuak emateko formula. Zerbitzuak emateko ereduak, pleguak eta formulak egitea.
  - b. Beste administrazio batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko komunikazio bideak.
6. Erabilera publikoaren plangintzaren ebaluazioa eta jarraipena. Jarraipeneko metodologia bat eta adierazleen sistema bat diseinatuko dira, bisitarien harrera gaitasuna jakiteko eta erabilera publikoko jardueren ondorioak baloratzeko. eragin sozioekonomikoa bertako herrietan, ingurumen eragina eta Ingurumen Hezkuntza eta Interpretazioko programen eraginkortasuna.

#### 4.2.3. Garapen Sozioekonomikoko Programa

Programa hau egiteko oinarriak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan eta Eskualdeko Landa Garapeneko Programetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenaren Legetik eratorriak) agertzen direnak izango dira, eta programa horien lan eremuan parkearen eragin sozioekonomikoko eremua sartzen da. Dokumentuan honako atal hauek sartu behar dira, gutxienez:

- Helburu zehatz eta neurgarriak.
- Jarduketa plana.
- Finantza programa.
- Betetzeko kronograma.
- Jarraipenerako tresnak.
- Zerikusia duten erakundeen inbertsio konpromisoak.

#### 4.2.4. Natura Ereku Babestuko Ehiza Baliabideak Antolatzeke Plana

Natura Ereku Babestuaren kontserbazio eta kudeaketa lanabesen edukiak beteko ditu ehizaren antolamenduari dagokionez, eta honako atal hauek jasoko ditu gutxienez:

1. Aurrekariak.
2. Funtsezko irizpideak.
3. Helburuak.
4. Ehiza jardueraren diagnostikoa Natura Ereku Babestuan.
  - Aztertuko den arearen eta ehizarako oinarriko baliabideen deskribapena.
  - Lege xedapenak.
  - Ehiza arloan interesa duten espezieak.
  - Zonifikazioa.

5. Natura Ereku Babestuaren aisialdi erabilera.
6. Antzemandako problematika.
  - Natura baliabideen zaintza.
  - Ehiza eta arrantza aprobetxamenduen eta gainerako erabilera publikoen arteko arazoak.
  - Ehiza baliabideak.
7. Kudeaketarako proposamenak.

#### **4.2.5. Baso Kudeaketako Plan Integrala**

«Mendiak antolatzeke proiektuak. Ereku babestuak zaintzeke tresnak» izeneko gidaliburuan (Europarc, 2013) ezarritako irizpideen arabera eta 1. FE-Basoak (3.1. kapituluak) kontserbazio elementuan jasotako ildoen arabera.

#### **4.2.6. Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala**

Planak gutxienez jaso beharke ditu larreei buruzke funtsezke elementuaren 37. neurrian (3.1. kapituluak) azaldutako atalak.

#### **4.2.7. Gaztainondoek landaketa zaharrak zaintzeke eta kudeatzeko plana**

Planak gutxienez jaso beharke ditu basoei buruzke funtsezke elementuaren 4. neurrian (3.1. kapituluak) azaldutako atalak.

## 2. ZATIA. KARTOGRAFIA ETA GEHIGARRIAK

### 5. KARTOGRAFIA

Izkiko Natura Eremu Babestuari dagokion kartografia Eusko Jaularitzaren webgunean dago eskuragarri: [www.euskadi.eus/natura](http://www.euskadi.eus/natura)

## 1. GEHIGARRIA. ERABILERAK MUGATZEAGATIKO KONTENTSazio SISTEMA ETA BASO ERABILERARAKO LAGUNTZA SISTEMA

### Aurrekariak

Natura Eremu Babestu baten araudia aplikatzeak hainbat murrizketa dakartza babestutako espazioaren barruko lurretako erabilera eta aprobetxamenduetan. Lursail horien jabeei eta onuradunei kalte ekonomikorik ez sortzeko eta parkearen funtzionamenduan parte har dezaten, kontentsazio ekonomikorako zenbait mekanismo proposatuko ditugu.

Bestalde, Natura Eremu Babestuaren eragin aldeko garapen sozioekonomikoko helburuek zenbait ekimen eta jardunetarako inbertsioak eta laguntzak behar dituzte. Interesdunek helburu horiek lortzeko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratu ahal izateko mekanismoak jartzea da gure xedea gai honetan.

### Helburu nagusia

Natura Eremu Babestuaren araudiak ezarritako erabileren mugaketengatik kontentsazioak ordaintzeko oinarri arautzaileak ezartzea, baita haren Eragin Sozioekonomikoko Eremuan landa garapenerako laguntzak eta dirulaguntzak emateko ere.

### Helburu zehatzak

- Natura Eremu Babestuaren kontserbazio eta kudeaketa tresnen erregulazio eta exigentziak aplikatzearen ondorioz, erabilera batzuk errentagarritasun txikiagoa duten beste batzuekin ordezkatu behar dira. Beraz, aldaketa horiek dakarten finantza errentagarritasuneko galera arindu behar da.
- Natura Eremu Babestuaren kudeaketaren helburuekin bateragarri diren jarduera eta erabilerak sustatzea, lanbide berriak eta garapen sozioekonomikorako aukera berriak bultzatuz.
- Azpiegiturak sortzea eta hobetzea, eta eremuaren natura eta kultura ondarearen erabilera publikoarekin eta zaintzarekin zerikusia duten zerbitzuen eta ekipamenduen maila gokia lortzea.
- Natura Eremu Babestuaren eragin sozioekonomikoko eremuko biztanleak parkearen kudeaketan integratzea, eta parkearen balioak babesteagatik eta babesteko sortutako jardueretan parte hartu araztea.
- Antolatutako eremuaren natura eta kultura baliabideei buruzko jakintza hobetzeko ekimenak bultzatzea.

## **Aplikazio eremua**

Laguntzak aplikatzeko eremua Izkiko Natura Eremu Babestuaren Eragin Sozioekonomikoaren Eremua izango da. Parke Naturalak mugatutako lurraldeari eta haren eremu periferikoari arreta berezia emango zaie.

## **Mota**

### **Parke natural izendatetik ondorioztatzen diren ordainketak eta laguntzak**

#### **Erabilerak eta aprobetxamenduak mugatzeagatik eman beharreko konpentsazioak**

Parkearen adierazpenetik eta bere arauditik ondorioztatzen diren murrizpenak konpentsatu behar dira, erabilerak mugatzen direlako. Bestek beste:

- Nekazaritza eta basogintza sektorean errenta galtzeagatik ordaindu beharreko konpentsazioak, batez ere murrizpenen peko kudeaketa pribatuko lurraldeetan.
- Intereseko habitatak babesteko, nekazaritza eta abeltzaintza erabiltzearen mugengatiko konpentsazioa.
- Parke naturalak sustatzen duen erabilera publikoaren ondorioz nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeari sortzen zaizkien eragozpen edo aldaketengatik eman beharreko konpentsazioak.

#### **Parke naturalaren balioak aztertzeke eta onik zaintzeko ekimenetarako laguntzak**

Dirulaguntzak edo laguntzak jaso ditzakete ekimen publiko edo pribatuak, haien xedea Natura Eremu Babestua eta bere zona periferikoa hobetzea, zaintzea eta garatzea denean Jarduketa lerro hauetako batean dauden jarduerak egiteko laguntzak eman ahalko dira:

- Natura Eremu Babestuaren natura eta kultura balioak aztertzea, sustatzea eta hedatzea, bertako fauna eta flora espezieak eta oinarrizko prozesu ekologikoak mantentzeko funtsezko elementuak diren aldetik. Parkeak ekonomia, hezkuntza, turismo eta aisialdi baliabideetan daukan papera ere aztertzea, sustatzea eta hedatzea
- Natura Eremu Babestuaren erabilera publikoko eskaintzaren barruan ekipamendu fisikoa, langile taldea eta jardueren garapena hobetzea
- Natura Parke Babestuan eta bere inguruko eremuan hezkuntza, interpretazio eta ingurumen boluntariorako jarduerak diseinatzea eta garatzea
- Izkiko eremua Natura Eremu Babestu izendatzea ekarri duten balioak onik zaintzeko neurriak eta jardunak, natura baliabideak antolatzeke planean eta EKPZ honetan identifikatuak.
- Natura Eremu Babestua antolatzeke eta kudeatzeko dokumentuak betetzen direla zaintzea eta jarraipena egitea: NBAP eta EKPZ.

## **Onuradunak**

Tokiko erakundeak, enpresak, partikularrak, nortasun juridikoa duten elkarteak eta legez eraturta dauden eta espazio honi lotuta dauden guztiak, beraien helburuen artean laguntza hauen kontzeptuarekin zerikusia duten jarduerak egitea badago.



Laguntzaren xedea den ekintza egingo den lursailen jabe diren pertsona fisiko eta juridiko guztientzako laguntzak lehenetsiko dira. Parkea onik zaintzeko eta hobetzeko edo bertako basa espezieak eta haien habitatak babesteko eta onik zaintzeko ekintzak egiteko lursailen aprobetxamendua lagatzen duten jabeentzako laguntzak ere lehenetsiko dira. Eskatzailea ez bada lursailaren jabea, jabearen berariazko adostasuna izan beharko da eskatzen den jarduna egiteko.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, ondoko betekizunak bete behar dira, gutxienez:

- Azken 5 urteetan ebazpen betearazle baten bidez zehatua ez izatea, basa fauna eta flora onik zaintzearen edo ingurumenaren aurkako urraketaren bat egiteagatik.
- Estatuarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga obligazioak ordainduta edukitzea.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa dela bide onuradun izatea galarazten duten kasuetako batean ere ez egotea.

Ingurumen gaitako indiziplinako ekintzek laguntza hauek bertan behera geratzea edo gutxitzea ekar dezakete.

### **Prozedura**

Laguntzen eta dirulaguntzen emakida kaltetutako eremuan gizarte etekina ahalik eta gehien banatzeko irizpideen arabera bideratuko da, eta parkeko patronatuak txostena egin ondoren emango da. Adjudikaziorako, besteak beste, ondoko parametroak haztatuko dira balorazio irizpide gisa.

- Proiektuak Natura Ereku Babestuaren helburu eta jarduerari egokitzeko maila.
- Bizi kalitatea hobetzeko eta garapen sozioekonomiko jasangarrian duen ondorioaren intentsitatea, parkearen eragin sozioekonomikoko eremuan lanpostuak sortzea barne.
- Eskatzaileak, babestutako natura espazioaren erabileren araubidearen ondorioz dauden aprobetxamenduak etetearen edo aldatzearen ondorioz, galtzen dituen diru sarrera garbiak.
- Laguntzaren xede den jarduera egiteagatik lortutako ingurumen eta gizarte etekinak.

### **Zenbatekoa**

Dirulaguntzak ematean, aurrekontuan erabilgarri dagoen dirua bakarrik baliatuko da. Urte anitzeko gastuetarako konpromisoak hartu ahalko dira.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateragarriak izango dira emandako laguntzak.

## **Eskaera**

Laguntza hauen eskaera parkea kudeatzen duen organoari egin behar zaio. Eskaera egiten duenak edo hura legez ordezkatzeko duenak sinatu beharko du

## **Landa garapenerako laguntzak**

Landa garapenerako xedea duten hurrengo ekimen publiko edo pribatuak kontentsazioa, dirulaguntza edo laguntza jaso ditzakete.

Jarduketa lerro hauetako batean dauden jarduerak egiteko laguntzak eman ahalko dira:

- Nekazaritzako eta basogintzako lurra modu jasangarrian erabiltzeko neurriak.
- Landa ekonomia dibertsifikatzeko neurriak.
- Inguruan tipikoak diren eta ingurumena babestearekin bateragarriak diren jarduerak tradizionalak mantentzea eta hobetzea.
- Natura onik zaintzean, babestutako espazio naturalak kudeatzean eta ingurumena babestean trebakuntza.
- Eragin sozioekonomikoaren eremuko biztanleen bizi baldintzak hobetzen laguntzen duten azpiegitura eta ekipamendu obrak egitea.
- Natura Ereku Babestuan bisitariak hartzeko eta egoteko aukerak hobetzeko proiektuak
- Lan eskaintza hobetzeko jardunak eta EKPZ honen helburuak lortzeko ekarpena diren ekimen pribatuak garatzeko ekintzak.
- Nekazaritza eta basogintza sektorearen jarduketak garatzean hobekuntza teknikoak eta ingurumeneko hobekuntza dakartzaten ekimenak.

Hauek dira prozeduraren baldintzak (onuradunak, neurriak, eskabideak, emakidak, finantzazioa, administrazioko izapidetzeak eta abar) zehaztuko dituztenak: batetik, indarrean dagoen EAEko Landa Garapen Jasangarriko Plana, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 Araudia (EE) (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoaren (LGENF) bidez landa garapenerako laguntza emateari buruzkoa) garatzen duena, eta bestetik, berariaz onartzen diren Landa Garapenerako Eskualdeko Programak.

Landa garapenean zerikusia duten gainerako erakundeekin batera (tokiko administrazioa, landa garapenerako elkarteak eta abar), Organo Kudeatzailea bitartekaria izango da, aholkulari eta katalizatzaile gisa, goian aipatutako kontzeptuetan laguntzen eskaerak eta emakida sustatzeko.

## 2. GEHIGARRIA. FUNTSEZKO ELEMENTUEI LOTUTAKO NEURRIEN BALORAZIOA

Funtsezko elementua	Neurria	Aurrekontua (€)
<b>BASOAK</b>	1.- Baso Kudeaketako Plan Integrala prestatzea, Izkiko Natura Eremua zaintzeko eta kudeatzeko lanabesen ildoak jasoko dituen.	25.000
	2.- Zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea; kontuan hartuta, besteak beste, habitat motak, zuhaitzien bilakaeraren egoera, erabilerak eta espezie tipikoen beharrak.	4.000
	3.- Zuhaitzi motzen eta bestelako zuhaitz handien inbentarioa egitea eta horiek epe luzean zaintzeko eta kudeatzeko programa bat diseinatzea.	4.000
	4.- Gaztainondo landaketa zaharrak zaintzeko eta kudeatzeko plan bat prestatzea eta plan honen 6 urteko indarraldiaren barruan aurrera eramatea. Plan horretan masen kontserbazio egoera definituko da eta gainbehera dauden aleei begira zenbait jardun jasoko dira (inausketak, enborreko txertaketak, tratamenduak, etab.), bai eta horiei lehia egin diezaieketen bestelako espezieen gaineko jardunak ere (pagoak eta haritzak).	3.000
		-
	5.- <i>Quercus robur</i> -ek Ameztiaren barruan presentzia aztertzea, bai eta <i>Q. pirenaica</i> -rekin ( <i>Q. x andegavensis</i> ) duen hibridazio maila ere.	4.000
	6.- Artzaintzak erkameztien multzoen gainean duen ukipen maila zehaztuko duen azterlana prestatzea eta horretan erkameztiak hobetzeko jarduketak zehaztea.	3.000
	7.- Izkiko Natura Parkearen Erreserba Integralean sartutako amezti masaren eboluzioa ebaluatzea.	18.000

	8.- Haginaren presentzia eta eraberritzea aldeztuko duten jarduketak diseinatzea eta aurrera eramatea, bereziki aleen dentsitateak potentzialtasuna duen eta orbanen berreskurapen erraza ahalbidetuko duen guneeetan (perimetroko hesi partzialak, etab.). Neurri horrek 9580* habitataren kontserbazio egoeran duen eraginaren jarraipena egitea.	4.000
	9.- Haginen haranean (30TWN3932) prospekzio bat egitea eta hura aztertzea, 9580* habitataren presentzia zehazteko aukera baloratze aldera giro mediterraneoan (azpimediterraneo/azpiatlantikoa), eta bultzada ematea.	3.000
	10.- Sei urteko zaintza planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, baso floraren funtsezko elementu gisa definitutako espezien populazioen eta habitaten egoeraren jarraipen sistematikoa egitea ahalbidetzeko.	18.000
	11.- Nartziso espezien dibertsitatea eta horiek kontserbatzeko garrantzia islatzen dituzten kartelak eta zabalkunde materialak prestatzea, hala bulboen erauzketa eta loreen bilketa prebenituz.	6.000
	12.- <i>Narcissus triandrus subsp. triandrus</i> -rentzat eskuragarri dagoen habitateko baso egoerak eta azalera hobetzeko protokolo bat ezartzea, soilguneak zabalduz eta sasitza mehaztuz, eta ex-situko ugalketa eta populazioaren ondorengo irtotzea baloratzea.	6.000
	13.- <i>Sorbus latifolia</i> -ren ex-situko ugalketarako protokolo bat ezartzea, bai ugalketa begetatiboa bai hazi bidezkoa, populazioaren ondorengo irtotzea ahalbidetzeko.	6.000
	14.- <i>Cerambyx cerdo</i> , <i>Lucanus cervus</i> , <i>Rosalia alpina</i> eta <i>Euphydryas aurinia</i> espezieen populazio mailak zehaztea populazio errolden bidez sei urterik behin eta haien lurralde banaketa ezartzea Natura 2000 eremuan.	18.000

	15.- Koleoptero saproxilikoaren eta <i>Euphydryas aurinia</i> lepidopteroaren zenbait populazio pilotu hautatzea eta haien gainean jarraipena egitea bi urterik behin.	6.000
	16.- Intereseko eremuen mapa bat prestatzea Izkiko Natura Eremu Babestuko koleoptero saproxilikoaren espeziarentzat.	3.000
	17.- Baso harraparien lurralde ezagun guztien erroldak egitea bi urterik behin, bai eta Natura Eremu Babestuan izan ditzaketen kokalekuenak ere.	9.000
	18.- Gehien ikusten diren baso harraparien bikoteen ugalketa parametroak aztertzea, bi urterik behin ugalketa aldagaien gaineko azterlana eginez.	6.000
	19.- Izkiko Natura Eremu Babestuko baso harraparien habiak eta baso kiropteroen aterpe nagusiak kontrolatzeko eta zaintzeko plana ezartzea udan. Arreta berezia jarriko da alterazio susmorik egonez gero edo ale helduen hilezkortasuna handituz gero.	6.000
	20.- Izkin kontserbatzeko interesik gehien duten pizidoen lurraldeen eta haien kokalekuen gaineko populazio errolda egitea sei urterik behin.	18.000
	21.- Okil beltzaren eta okil txikiaren populazioaren errolda zehatza egitea Izkiko Natura Eremu Babestuaren esparruan.	18.000
	22.- Funtsezko elementu gisa definitutako baso pizidoen lurralde pilotuak hautatzea eta haien ugalketa parametroen urteroko azterlana egitea.	6.000
	23.- Pizidoek okupatzen ez dituzten eta haritzen, pagoen do makalen dentsitate txikiak dituzten gunetan zuhaitzi gazteen soilketak eta sastraken mozketak egitea, baldin eta gune horiek egokitzat jo badira alde zuzeneko azterlanetan.	-
	24.- Natura Eremu Babestuan okil ertainari buruzko datu basea prestatzea, espeziaren banaketari, ugaritasunari, ugalketari, fenologiari eta hilkortasun edo eragozpen arrazoiei buruz.	3.000

	25.- Kontserbatzeko interesa duten baso kiropteroen espezieen populazio erroldak egitea sei urterik behin.	18.000
	26.- Izkiko Natura Eremu Babestuan baso kiropteroen espezie nagusien kolonia pilotuak hautatzea eta horiek urtero-urtero monitorizatzea.	6.000
	27.- Izkiko Natura Eremu Babestuan baso kiropteroen espezieen natura aterpeen erregistroa sortzea. Erregistro horretan aurrera eraman daitezkeen jarduketan ebaluazio eta balorazioa txertatuko da (elikadura guneak eta putzuak egokiak diren, eta abar)..	3.000
	28.- Aterpe artifizialak instalatzea eta haien jarraipena egitea baso kiroptero nagusiek gaur egun kolonizatu ez dituzten guneetan.	9.000
	29.- 29.- Glis glis populazioaren ezaugarriak ateratzeko eta horrek Izkin duen zaintze egoera argitzeko azterlana egitea. Espezie honentzat, habi artifizialak instalatu eta horien gaineko jarraipena egiteko kanpaina garatzea, hala badagokio.	18.000
	30.- Basakatuari dagokionez: - Haren kontserbazio egoera aztertzea. - Basatutako etxeko katu aleak eta landa guneetatik kanpo bizi direnak kontrolatzea. - Bi espezieen, alegia, basakatuaren eta etxeko katuaren arteko harremanak aztertzea Parkean: balizko hibridazioak, gaixotasun transmisioa, lehia, eta abar.	18.000
	31.- Zaintzaileei zuzendutako prestakuntza ikastaro praktikoak garatzea, sutegietan zuhaitzak markatzeko teknika berriak ezagutzera emate aldera.	3.000
	32.- Eremuko gaztainondoen jabeekin eta toki populazioekin lantalde bat sortzea, horien kontserbazio egoera hobetzera zuzendutako jarduketa plan bat abiarazteko asmoz.	1.000

	33. Azterlan bat egitea kontserbazio eta kudeaketa tresnak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.	6.000
<b>LARREAK</b>	34.- Izkiko Natura Eremu Babestuaren barruan 6210 habitaten kartografia berrikustea (orkideetan opariak diren larreak), lehentasunezko azpimotak bereizteko lehentasunezkoak ez direnetatik.	18.000
	35.- Orkideak ugaltzeko garaian (apiriletik ekainera) artzaintzako gunek libreak mugatuko dira 6210* lehentasunezko habitataren banaketa eremuan.	2.000
	36.- Jardunbide egokiei buruzko gidaliburua idaztea Natura Eremu Babestuko mendi publikoetako larreen abeltzaintza eta artzaintza aprobetxamendurako.	1.000
	37.- Natura Eremu Babestuko mendi publikoetako abeltzaintza eta artzaintza larreen aprobetxamendurako jardunbide egokien gidaliburua argitaratu eta zabaltea abeltzaintza sektorearen eta toki erakundearen artean.	4.000
	38.- Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala prestatzea eta abiaraztea.	20.000
	39.- Sei urteko zaintza planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, flora espezieen populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egitea ahalbidetzeko.	18.000
	40.- Belardi eta larreetako flora espezieen populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.	6.000
	41.- <i>S. humilis</i> zehaztu deneko gunetan <i>Scorzonera aristata</i> -ren ezarpenak kokatzeko prospekzio zehatzak egitea, zehaztaperen akatsak baieztatze edo baztertze.	9.000
	42.- <i>Ophrys aveyronensis</i> eta <i>Scorzonera aristata</i> -ren populazio mailaren ezagutza hobetzeko prospekzio zehatzak egitea.	9.000

	43.- Pagadien hedadura atzematen bada harkaitzetara eta karezko hormetara, horrek kolokan jar dezake <i>Senecio doronicum</i> subsp. <i>doronicum</i> -en presentzia; hori dela eta, jarduketa eremu zehatzak aukeratuko dira, soilguneak zabaltzeko edota pagadiak kentzeko.	-
	44.- <i>Scorzonera aristata</i> espeziearen germoplasma biltzea. Material genetiko hori biltzea, erneketa probak garatzea eta hazien bideragarritasuna aztertzea, espezie hori berriro sartzeko edo sendotzeko.	6.000
	45.- Populazio erroldak egitea: bi urterik behin ingurune zabaleko harraparien lurralde guztietan eta Izkiko Natura Eremu Babestuan kokatzeko izan ditzaketen lekuetan.	9.000
<b>ZOHIKATZAK</b>	46.- Hezeguneak eta zohikatzen higroguneak kontserbatzeko eta erabiltzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, abeltzaintzako erabilerari, azken egokitzapenari, lehengoratzeko ekintzei (lehortutako guneak berreskuratzea, drainatzeak kentzea, isurketen kontrola...) eta abarri mugak ezartzeko aukera eta komenigarritasuna aztertuz agiri honetan ezarritako lehenitasuneko ekintzak jasoz.	20.000
	47.- Sarba-Arizuloko <i>Senecio carpetanus</i> azpipopulazioaren prebentzio hesia eta San Romaneko ihitokiko azpipopulazioan dauden sastrakak kentzea. Neurri horien erantzunaren jarraipena egitea eta plantulak ernetzeko eta ereiteko protokolo bat garatzea.	27.000
	48.- <i>Carex davallana</i> , <i>Drosera longifolia</i> eta <i>Primula farinosa</i> habitataren azalera txikiak ixtea eta, beharrezkoa izanez gero, askak instalatzea inguruetan, espezieak berreskuratzeko eremuetatik kanpo. Neurri horien erantzunaren jarraipena egitea eta plantulak ernetzeko eta ereiteko protokolo bat garatzea.	20.000



	49.- Zohikatzen guneetako funtsezko elementuak multzokatzeko espezieen tokian tokiko populazioen, habitaten eta bestelako baldintzatzaileen egoera sistematikoaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten sei urteko zaintza planak definitzea, ezartzea eta mantentzea.	18.000
	50.- Zohikatzetako flora espezien populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.	6.000
	51.- Germoplasmaren bilketarako eta mehatxatuen dauden espezieen ex-situko ugalketarako programa bat prestatzea.	6.000
	52.- Hedapen potentzialeko eremuak zehatzea eta mehatxatuen dauden espeziei begira birsartzeko eta ingurunera egokitzeko protokoloak prestatzea.	3.000
<b>IBAIK ETA IBARRETAO INGURUNEAK</b>	53.- La Dehesako Putzuak, Fuente Honda, Lakanduz, Raso Espinas, Raso, Renabar eta Marizurietako zohikaztegiak babestea <i>Rana dalmatina</i> espeziarentzako lehentasunezko babesleku gisa. Hezegune hauetan bideratzen den edozein jardunek espeziari ekarritako eraginaren txosten bat eduki beharko du, eta baita Organo Kudeatzailearen baimena ere.	18.000
	54.- Eremuko hezegune iraunkorrak eta aldi baterakoak kontserbatzeko eta erabiltzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, abeltzaintzako erabilerari, azken egokitzapenari, lehengoratzeko ekintzei (lehortutako guneak berreskuratzea, drainatzeak kentzea, isurketen kontrola...) eta abarri mugak ezartzeko aukera eta komenigarritasuna aztertuz agiri honetan ezarritako lehentasunezko ekintzak jasoz.	20.000
	55.- Olandinako lakuko fauna aloktonoa desagerraraztea. Kubeta txikia berreskuratzea eta bertan <i>Nymphaea alba</i> birsartzea, populazio naturalaren diasporak erabiliz.	25.000
	56.- Olandinako lakuan informazio panel bat instalatzea, habitat horren garrantziaren berri emateko eta bertan dauden flora	2.000

	eta fauna espezien dibertsitatea jakinarazteko.	
	57.- Otazako ameztiko hezegunean (Maeztu) abereen sarrera mugatzea, zapaltzea saihesteko hesi perimetrala jarritz eta aska bat instalatuz, beharrezkoa izanez gero.	6.500
	58.- Gizakiak edota abereek kutsatzaile organikoak sortzea zaintzeko eta kontrolatzeko sistema finkatzea Berrozi eta Ayuda ibaietan.	9.000
	59.- 3170* habitataren banaketa eta azalera eta Izkiko Natura Eremu Babestuan duen problematika ezagutaraztera bideratutako kanpo prospekzioa eta habitat horretako floraren ezagutza berrikustea eta eguneratzea.	9.000
	60.- Dinamika hidrologikoaren, emarien eta uraren kalitatearen ezagutzan sakontzea, lurrazpiko fluxuetan arreta berezia jarritz, toba sorrarazten duten kaltzifikazio prozesuak mantentzea horren menpe baitago.	9.000
	61.- Gaur egun toba eratzeko puntu dinamiko eta ebolutiboa zehaztea, etorkizuneko bilakaera aurreikusi ahal izateko.	9.000
	62.- Zohikatzetako haltzadiak (91D0*) agertzeko puntuak kartografikoki zehaztea, haien benetako azalera, egitura eta funtzioak ezagutzeko biderik onena den aldetik; era berean, denboran izandako bilakaera ebaluatzea.	9.000
	63.- Haltzaren gainbehera izenekoaren agerpen edo presentzia zaintzeko eta prebenitzeko protokolo egokien ezarpena bultzatzea; izan ere, hori <i>Phytophthora alni</i> onddoak eragiten du eta horrek nabarmenki eragin diezaieke 91D0* eta 91E0*-ko haltzadie.	3.000
	64.- Berreskurapen ekintza diseinatzea herri jabari hidraulikoa inbaditu den tartetean eta landaretza naturala kaltetu, ordeztu edo kendu den tartetean.	-

	65.- Zohikatzetako haltzadien hedapena ahalbidetzeko aukera baloratuko duen azterlan bat egitea 7230 motako zohikatz zabaletako ukipen guneetan.	6.000
	66.- Zaintzarako planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, ibaien eta ingurune akuatikoen funtsezko elementuen multzoaren flora espezien tokian tokiko populazio, habitat eta bestelako baldintzatzaileen egoeraren jarraipen sistematikoa egin ahal izateko.	18.000
	67.- Aldi baterako urmaeletako flora espezien populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.	6.000
	68.- Informazio eta prospekzio plan bat prestatu eta ezarriko da, eremuaren zaintzaileei ahalbidetzeko udaberrian hezegune txikiak eta horien ezaugarri diren espezie multzoak ezagutzea, betiere <i>Littorella uniflora</i> eta <i>Isoetes durieui</i> espezieetan arreta berezia jarriz, habitataren kokapen berriei eta espezie hauei buruzko datuak jasotzeko	3.000
	69.- Izkiko Natura Eremu Babestuan komunitate astazikolaren banaketari buruzko azterlanak egitea sei urterik behin karramarro autoktono eta aloktonoen populazioen bilakaera zehazteko Natura Eremu Babestuko ibai espazioetan kokatutako laginketa estazioen sare batean eta habitataren edota espezieen gaineko jarduketa neurriak ezartzea.	18.000
	70.- Karramarro autoktonoa Izkiko Natura Eremu Babestuko erreka eta putzu sarean hedatzeko plana diseinatzea, lekualdaketak eginez. Horretarako, banaketa azterlanak hartuko dira kontuan eta habitataren potentzialtasuna, betiere karramarro aloktonoen banaketa kontuan hartuz, bai eta ibaien goiburuetan ur hartunerik eza ere. Funtsezko elementu gisa definitutako espezieen anfibioen populazioa kontserbatzeko interesguneak ere alde batera utzi	9.000

	beharko dira.	
	71.- Ibai tarteetako uretan behera bi urterik behin laginketak egitea ibai karramarroaren presentzia baieztaturik dagoenean, bai eta espezie horrek kolonizatu ez dituen putzuetan ere, komunitate astazikola autoktono eta aloktonoen kolonizazio maila zehazteko edota espezie horiek sistema horien inbasioaren atzemate goiztiarra atzemateko	6.000
	72.- Izkiko Natura Eremu Babestuko putzu txikiagoetan fauna aloktonoen populazioak kontrolatzeko programa diseinatzea eta garatzea, espezie horien presentzia baieztaturik dagoenean.	20.000
	73.- <i>Aeshna affinis</i> eta <i>Coenagrion mercuriale</i> espezieen populazio mailak zehaztea, populazio errolda zehatz bat aurrera eramanez.	18.000
	74.- Kontserbatzeko interesa duten odonatoen populazioen jarraipena, 6 urterik behin egin beharreko populazio errolden bidez.	18.000
	75.- Las Rozas, Raso de los Espinos, El Espinal eta Olandinako putzuetako odonatoen populazioak bi urterik behin monitorizatzea, bai eta Galbaniturriko zohikatzetakoak ere.	6.000
	76.- Kontserbazio interesa duten fauna eta floraren populazioen gainean abereek duten eragina aztertzea hesi perimetrala jarriz modu experimentalean, Raso de los Espinos, Las Rozas eta Maeztuko larreko putzuen inguruan eta Los Ríosko trokaren goiburuko erreketan eta Galbaniturriko zohikatzean ere.	10.000
	77.- Raso de los Espinos, Maeztuko larre eta Las Rozas inguruan askak eraikitzea, aurreko neurriak tokian tokiko abeltzaintzan izan ditzakeen ukipenak murriztu nahian.	7.500
	78.- <i>Discoglossus jeanneae</i> eta de <i>Rana dalmatina</i> espezieen populazio mailak zehatzea, errolda zehatz baten bidez.	18.000

	79.- Izkiko putzu eta erreken sarean anfibioen funtsezko elementuen multzoko taxonen errolda, 6 urterik behin.	18.000
	80.- Maeztu, Las Rozas, Marizurrieta eta Raso de los Espinos-eko putzuetako anfibioen populazioak bi urterik behin monitorizatzea, bai eta Galbaniturri, Fuente Honda eta El Mineral-eko zohikatzetan ere.	6.000
	81.- <i>D. jeanneae</i> espeziea Izkiko putzu eta erreken sarean zabaltzeko programa bat diseinatzea, lekualdaketak eginez. Horretarako, espeziearen banaketa hartuko da kontuan, bai eta habitaten potentzialtasuna (ibai karramarroen eta igel arruntaren banaketaren arabera) eta bestelako ukipenik ez egotea ere.	9.000
	82.- Sei urterik behin populazio erroldak egitea Izkin bisoi europarraren eta igarabaren banaketa eta populazio egoeraren berri izateko.	18.000
	83.- Bisoi europarraren presentziaren eta gabeziaren urteko aurreikuspena bisoi amerikarraren ugaritasun erlatiboarekin alderatuz, azken hori kontrolatzeko programaren bidez (betiere bizirik harrapatzeko urteko tranpetan oinarrituz).	4.000
	84.- Bisoi amerikarraren populazioak kontrolatzeko programari jarraitzea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako kudeaketa planean ezarritakoari jarraituz. Egitasmo horretan espezie exotiko inbaditzailea bizirik harrapatzeko urteko tranpak azaltzen dira.	12.000
	85.- Izkin bisoi europarraren eta igarabaren habitataren potentzialtasuna aztertzea eta ikertzera bideratutako jarduketa programa prestatzea eta garatzea, hobetzeko jarduketan proposamena jasoz.	4.000

<b>HARKAITZAK ETA ANTZEKO INGURUNEAK</b>	86.- Sei urteko zaintza planak zehaztea, ezartzea eta mantentzea, baso floraren funtsezko elementu gisa definitutako espezien populazioen eta habitaten egoeraren jarraipen sistematikoa egitea ahalbidetzeko.	18.000
	87.- Harkaitzetako eta antzeko inguruneetako flora espezien populazio pilotu batzuk hautatzea urteroko jarraipen lana egiteko.	9.000
	88.- <i>Potentilla fruticosa</i> espeziearen germoplasma biltzea. Material genetiko hori biltzea, erneketa probak garatzea eta hazien bideragarritasuna aztertzea, espezie hori berriro sartzeko edo sendotzeko.	6.000
	89.- Harrapari harkaiztarren lurralde eta kolonia guztien populazio erroldak egitea urtero, bai ezagunenak bai kokalekuak izan daitezkeenak bai utzi dituzten lurraldeenak. Jarraipen lan horretan hontz handia eta belatxinga mokogorria sartuko dira.	9.000
	90.- Eremuan arrano beltzaren populazioaren errolda zehatza garatzea, gehienbat ugalketari buruzko datuak lortzeko.	18.000
	91.- Ugalketa parametroak aztertzea. Gehien ikusten diren bikoteen ugalketa parametroak aztertzen jarraitzea urtero; horretarako, metologia estandarrari jarraituko zaio, bi aldagaitan arretan berezia jarritz: ugalketan izandako arrakasta eta produktibitatea.	6.000
	92.- Izkiko Natura Eremu Babestu osoan habiak kontrolatzeko eta zaintzeko plana ezartzea udan. Arreta berezia jarriko da helduen espoliazio aukeren eta hilezkortasun arriskuaren susmoa dakarren edozein zantzutan, bai eta habiak egiteko eremuetan eragozpenak murrizteko zereginean ere. Horretarako, honako epe kritiko hauek ezartzen dira: - Sai zuria: martxoaren 1etik irailaren 1era. - Sai arrea: urtarrilaren 1etik	6.000

	<p>abuztuaren 15era.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrano beltza: martxoaren 1etik uztailaren 20ra.</li> <li>- Belatz handia: otsailaren 20tik ekainaren 2ra.</li> <li>- Hontz handia: urtarrilaren 10etik ekainaren 30era.</li> <li>- Belatxinga mokogorria: martxoaren 1etik uztailaren 15era.</li> </ul>	
	93.- Korresko linea elektrikoak abifaunarentzat duen arriskua baloratzea eremuaren ekialdeko sektorean, hala badagokio, hori zuzentzeko neurriak diseinatuz.	9.000
	94.- La Muela, Agin eta Arluzea inguruetara sartzeko debekua seinaleztatzea urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean.	6.000
	95.- Baimendutako eskalada guneak mugatzeko seinale eta informazio panelak jartzea.	3.000
	96.- Baimendutako guneetatik kanpo kokatutako eskalada ekipamenduak kentzea.	9.000
	97.- Kontserbatzeko interesa duten haitzuloetako kiropteroen eta antropofiloen populazio erroldak egitea sei urterik behin.	18.000
	98.- Izkiko Natura Eremu Babestuan haitzuloetako kiropteroen eta antropofiloen espezie nagusien kolonia pilotuak monitorizatzea urtero.	6.000
	99.- Izkiko Natura Eremu Babestuko haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen espezieen babesleku natural eta artifizialen erregistro bat sortuko da. Erregistro horretan haietan egin daitezkeen jarduketan ebaluazio eta balorazio bat jasoko da (haitzuloetako sarreren sare horizontalak, elikadura guneen egokitzapena, etab.).	3.000
	100.- Haitzuloetako kiropteroen eta kiroptero antropofiloen aterpe nagusiak kontrolatzeko eta zaintzeko plana ezartzea, arreta berezia jarriz alterazio susmorik egonez gero, ale helduen hilezkortasuna handituz gero edo ugalketa garaian eragozpenik izanez gero.	3.000

<b>HAREATZAK</b>	101.- <i>Halimum lasianthum subsp. alyssoides</i> espeziea dagoen bi gune txikietan hesiak jartzea. Neurri horren jarraipena egitea eta hazien bilketaren, erneketaren eta plantulen ereintzaren protokolo bat garatzea.	9.000
	102.- Modu naturalean, abeltzaintzaren aprobetxamenduaren bidez, ezin bazaio habitat horri eutsi, sastrakak garbituko dira eremu txikietan edo erreketan partzial kontrolatuak, populazioa biziberritzeko bide gisa.	-
	103.- Haztegian ugaltzeko protokolo bat prestatzea germoplasma bilduz eta ale berriak lortuz, populazioa sendotu ahal izateko.	6.000
<b>KONEKTIBOTASUNA</b>	104.- Konektibotasun ekologikoa hobetzeko proiektu bat garatzea eremu honen mendebaldeko muga, A-132 bidearen eremuan.	18.000
	105.- Drainatzeak edo bestelako azpiegiturak jarraitzea eta zuzentzea, pasabide lehorren bidez eta abar, ibaien eta hezeguneen sarean konektibotasuna aldezteko.	18.000
	106.- Ekoizpen hidroelektrikorako deribazio kanala jarraitzea eta zuzentzea egitura egokien bidez, hala nola irteera arrapalen bidez, etab.	6.000
<b>BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA</b>	107.- EUNIS habitaten kartografia aldizka-aldizka eguneratzeko protokoloa zehaztea, arreta berezia jarriz bilakaera naturalak edo gizakien esku-hartzeak eragindako aldaketetan.	3.000
	108.- Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal georeferentziatua" sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaietarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratze geologikoetarako etab. Inbentario horren barruan elementu bakoitzaren interesa eta kokapenerako beharrezko UTM koordenadak sartuko dira.	12.000



	109.- Funtsezko elementu gisa definitutako habitat eta espezie guztien kontserbazio egoera ebaluatzea, informazio fitxetan erregistratuz modu arinean erabil dadin eta, hala, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluari informazio estandarizatua transmititzeko darizkion betebeharrak bete daitezzen.	18.000
	110.- Zerbitzuetako pertsonalari zuzendu beharreko prestakuntza ikastaroak garatzea, betiere Natura Eremu Babestuaren kontserbazio eta kudeaketako lanabesetan proposatutako jarduketak, erregulazioak eta gidalerroak jakinarazteko eta funtsezko elementuak identifikatzeko.	6.000
	111.- Basoko suteen kontrako plan zehatza prestatuko da, formazio begetal nagusien erregarritasun maila eta ur puntuen beharra aztertzeke, betiere eremuaren bide sarearen planifikazioa jasoz. Plan horretan elementuen kartografia jasoko da, bai eta intereseko formazioena ere, hala nola zirkulazio zaileko guneak, eta abar. Planaren esparrua eremu osoa eta haren perimetro bat ere izango dira.	18.000
	112.- Biodibertsitatearen galera edo hondamena eragiten duten jarduerak zehazteko azterlan bat prestatzea eta ukipen hori ebaluatzea Izkiko Natura Eremu Babestuan.	3.000
	113.- Izkiko Natura Eremu Babestuko biodibertsitatearen hondamena eragin dezaketen jarduerak kenduz gero, murriztuko litzakeen errenta kalkulatzeko azterlan bat prestatzea.	3.000
	114.- Gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georreferentziatua jasoko da: eremuko baso faunaren espezieen artean izandako heriotzak, betiere linea elektrikoaren edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkengatik eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez	3.000

	naturalen ohiko beste edozein arrazoigatik. Mapa hori aldizka-aldizka eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko eta planen, programen eta proiektuen ingurumen ebaluazioetan aintzat hartzeko.	
	115.- Izkiko Natura Eremu Babestuan baso faunaren hilezkortasun ez-naturalari buruzko urteko txostena prestatzea, prebentzio neurriak jasoz.	3.000
	116.- Izkiko Natura Eremu Babestutik datozen eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea georeferentziak adierazita.	3.000
	117.- Eremua erabiltzen duten abeltzain, ehiztari, mendiko elkarte eta beste kolektibo batzuei zuzendutako informazio kanpaina bat egitea puntu beltzen mapa horri buruz eta haien lankidetzaz sustatzea hori prestatzeko lanean.	9.000
<b>KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTAIDETZA ETA HERRITARREN KONTZIENTZIA.</b>	118.- Zerbitzuetako pertsonalari zuzendu beharreko prestakuntza ikastaroak garatzea, betiere Natura Eremu Babestuaren kontserbazio eta kudeaketako lanabesetan proposatutako jarduketak, erregulazioak eta gidalerroak jakinarazteko eta funtsezko elementuak identifikatzeko.	3.000
	119.- Funtsezko elementu gisa definitutako habitatetarako, florarako, faunarako eta prozesu ekologikoetarako proposatutako kontserbazio jarduketei buruzko komunikazio eta informazio programa bat sortzea, eremuaren kudeaketan edota aprobetxamenduan inplikatutako agenteei zuzenduta.	6.000
	120.- Izkiko Natura Eremu Babestuan garatutako lanen berri ematea Arabako Foru Aldundiaren Natura Parkeen Zerbitzuaren webgunearan eta Eusko Jaurlaritzakoaren bidez.	3.000
	121.- Funtsezko elementuak txertatzea Izkiko Natura Eremu Babestuaren ingurumen	6.000

	hezkuntzako programaren material didaktikoetan eta zabalkunde materialean.	
	122.- Izkiko Natura Eremu Babestuaren balioei buruzko informazio panelak instalatzea, bai eta kontserbaziorako garatutako jarduketei buruzkoa ere, eremuen barruan bisitarik gehien hartzen dituzten guneetan (aisialdi guneak eta abar).	12.000
